

Jon Mirande

NARRAZIOAK

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Obra osoa (I)*, Jon Mirande Aiphasorho (Luis Haranburu Altunaren edizioa). Hiria, 1999.

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=225>

IPUIN ASMATUAK

BEHIAK

«Horregatik gauzkakete jainkosatzat herri zen baitetan eta jainkosak gara benetan.

(G. PENNAOD)

Etxea eta etxekoak utzi ditut goizean eta soroetar joan naiz, nire herriko soro musker batera. Euria ari zen; hegalez zebiltzen beleak ortzean, min zahar ahaz-gaitzen aranak ene gogoan kuatuz.

Baina musker zegoen belarra, eta mardul, eta behi gorraile batzu hor ziren alan.

Ni heltzean, gelditu ziren alatzetik, niri so jarriz. Baita neuk ere so egin nian eta honela hitz egin:

- Oi! behiak, jainkosa geldiok, ez asarre izan: ez natorkizue soroetako bake handia nahastera... Mindun eta apal bait nator, ez asarre izan...

Eta behiak etzan ziren ene baranoan, geldi geldiak neri begira.

- Behiok -nik esan nien-, ederrak zarete! eta laket zait zuen begien gentza hori. Ni, ordea, gizakume bat baizik ez naiz: nekatu naiz lanetan, min dut ene buruan, ene haragian...

Eta behiek erantzun zidaten:

- Zertarako, gizakumea? Lurra borobil duk; ingurazten duk; egun batek emana besteak zeramak. Baina belar muskerra gozo duk beti... Etzan hadi belar-gainean, atsedean har zak!

- Behiok -esan nien-, ederrak zarete eta laket zait zuen zaien margoa. Ni, ordea, gizakume bat baizik ez naiz: maitatu dut, min euki dut bihotzean...

Eta behiek eni erantzun:

- Zer duk bihotza, gizakumea? Lurra borobil duk, lurreko soro guzi orotan gozaten gara naski, gu eta geure ahizpak, jauzten gaituelarik jainko-zezenak. Baina belar gozo jatea, are gozoago duk... Etzan hadi belar gainean, atsegin har zak!

- Behiok -esan nien berriz-, ederrak zarete eta laket zait zuen ederra. Ni, ordea, gizakume bat baizik ez naiz: herrimenez bizi nintzen hemendik urrun, eta ikusi herri hau dela ta dut orain min...

Behiek, aldiz, erantzuki:

- Zergatik min gizakumea? Lurra borobil duk: hemen eta han baduk soro muskerrik, hemen ala han belar gozoa duk berdin gozo... Etzan hadi gurekin belar gainean, eta ase ahaztuz.

- Behiok! -behiei esan nien nik- eder eta zintzo zarete eta on da zuekin izatea. Ni haatik, gizakumea naiz, gizadimen minez, mindun... Entzun; nire anaia bat lehen zuetaratu zen, jainko gose, zuen jaikotsaratu. Galdu dut anaia hori, galdu dut nere jainko gosea. Esaidazute! Berriz edireiterik eta anai-jai berririk izanen da geroan?

Behiek, ordea, ez zuten aldi honetan erantzun, baizik luze luzaro eni begiratu. Eta heien begietan nabaitzen nuen... farre algara handi, isil bat... Orduan nik ere farre egin nuen behiekin batera. Belar gainean etzan nintzen haien artean, goizeko ekiak, bere euri-odei ohetik jautsirik, argitzen gintuela, belardiak, behiak eta ni.

(Zuberoan, 1951)

BI AOAK

(Zubero-ko ipuin bat)

Kondaira hau Xubero-ko artzai bati enizun diot edasten. IGELA-k euskaldun oituren zoko illun guziak argituxe nai lituke, ez du meritu andirik, ordea folklore bilduma egile ta eliza gizon batzuen eragozpenak ez bailitu.

Urte hartan Pazko eguna Maiatzean gertatu zen. Santa Graziko mendiak lilitzen ari ziren eta anbulaloren kirten luzeak aizean dantzan. Pazko bezperan bazterretxe hartako irur alabak Santa Graziko kalera kofesatzera joaiteko, goizintza urtu gabe bidean abiatu ziren.

Bi alaba zaarrenak bidean oso serio joaiten ziren, Iruoko kalean izan balira bezala. Gaztea, lorean erlea bezala, salto harat eta honerat, lorez lore kurritzen zitzairen. Bi aizpa zaarrenak predikatuta ere, ez zen gaztena geldirik egoten.

Baina bide erdia eginik zutelarik aizpa gaztena oiuz eta dantzan asi zen:

- Jesu maria. Hau gauza ederra. Eta lurrera apaldu zen zerbait borobilen biltzeko. Bi aizpak urbiltzean gaztenak:

- Beira zer erraztun ederra, lurrean idoro dutan eta arripresios batekin-. Besteak bekaitzez lereginda zeuden:

- Ez dun hirea, guk leen diagu. Ez baldin badun gurekin partitzen edo galdu duanari itzultzen, jaun erretorari salatuko aigu.

Apaiza asi zen, etxeko alabaren kofesetan eta etxeko primak bere pekatuak aitortu ondoren, aizpa gaztena salatzen du. Erretorak dio:

- ez da egiaz pekatu erraztun horren edukitzea, galzalea agertu arte beintzat, zenbait tratalari faltsu edo kontrabandisten batek galdua izango da ta luzaro zuen eskuetan egongo. Alarik ere zeinek leen ikusi zuen eztabaida bat sortu baita bakoitzari galdera bat egingo dizuet eta obekienik erantzungo eta inardetsiko duenak erraztuna eramango du.

- Zenbat ao ditutzu?

- Jaun erretora biga

- Zein da zarrena?

- Jauna bekoa.

- Zertako?

- Jaun erretora, bekoak bizarra baitu eta aldiz gainekoak ez oraindik.

Bigarren alaba kofesatzera urbildu zenean apaizak ez zuen uste erantzun obeagorik etzungo zuela eta neska kofesatu ondoren bigarrenari ber galdera zuzendu zion.

- Zenbat ao ditutzu?

- Biga jaun erretora.

- Zein da zaarrena?

- Gainekoa jauna.

- Zertako arren?

- Zeren eta gainekoak aginak aspaldian badauzka, bekoak aldiz oraino egiteko.

Biek zein obeto, erantzun zioten eta orain erraztundunaren aldi zen gaztenak pekatu arin batzu aitortu ondoren, erretorak erraztunaren kondua aipatu Zion eta ber kondizionetan, ber galderak egin.

- Zenbat ao ditudan jauna, biga.

- Zein da zaarrena?

- Gainekoa jauna.

- Zertako nere aurra?

- Jauna, gainekoak aspaldian ez du mamatu eta edoski, bekoak aldiz bart oraino edoskitzen zuen.

Hala gelditu zen gaztena erraztunarekin eta burua
etxera sartu.

JON DANE AQHERRUNEN BICITCE SAINTIA,

**Çoineq eraqousten dereiqun onxa
berthutia frutatce aberax eta emancorra dela**

Comentian es guiniçun aspaldy holaco sainturiq jssan, bena gore comentuco elissa ourthe zombaites bere botç oçenas aranaçy ondouan eta bere exemplu hones jenten amorioa jrabassiriq, gore fraidea, joannes Aqherrune, ermithain bat bessala oyhan batetan erretiratu çuçun.

Bena gutariq hurrun bicy bacen e, haren berry bagunien. Herry batetan garaiten cenian, haren berry estrandjeraq jaquiten beicuntian; delako comarcetan, Aita Joannesen jgaraitetiq landa, emaçte hanitcher miracuillus haor bat giten beiceren eta beste hanitcher paralisiaq sendotcen.

Non ere beita, joanneseq oyhaneco ermitha non cian esquiniçun secula jaqin jssanen, nombait Oyhan Beltcian oxo eta hartcen artian beicen eta hara nihor espeicen aosartcen sartcera. Behin haleiquere, bena franco ouste gabetariq, Anaye Anttony eta biaz oyhan

baçterrety bagountçala, oyhanian sarthu eta herratu guinen.

Bide gouchy baten buruyan cabagna bat jqhousy guiniçun eta etcholha aitçinialat ainguru bat aguertu ciquçvm. Eny uduritu citaçun emaçte eçinago propy eta ohaide honaren manera baciala, bena noureçy jagoen fraidia guehitu çuçun, hareq çioçun ainguru bat cela. Ny haren adina gatiq fidaturiq, baietç, inhar-dexy. Ichtantian ainguruya mintatu cereiqun.

- Arren çoaçte berhala comentiala eliçcacoen bilhaca ceren cabagna hontan saintu bat hiltcen ary den.

Eta ainguruya itçaletan galdu cenian gu cabagnan zalhe sarthu eta han jqhousy -beguithartia çoury çouria gore fraide joannes Aqherrunecoa etçaniq gagoela. Beguipe beltssaq jqhousy quintirotçun; guero es quini-rojun besteriç deousere nabaritu, salbu eta hoin mut-hurraq hotç çutiala eta beguy gabaletan çouria baissiq es guinirola jqhouston.

Anaye Anthony loxa çuçun eta erran cereitan comenturartino plaçer banian laguntu eliçcacoen bilha joanen guinela. Bena bidian hasy nintçoçun therritat-cen eta ceditu cen oyhanaen baçterriala baico, bebe-raq bidia seguy ceçan eta niq beinequien orano noure

lantças cerbutchatcen, utçul nendin espeicen coumbeny halacheq hil baten utcitea.

Guibeleracoan jdeia estrandjer bat gogoalat gin cereitan, hox Aita Naoussiaq nitan eçagutu dohaaignaq guidatcen nundiala eta dohain hory non ere den debruyaren urrina eagutceco photerea, nabasky cabagna alfo cerbait borogatu nian.

Eguia cen gataroan debruyaren frutatcetan bigabostetan ebaxy niala eta behin sobera jates eritu ondo fraidetu nintçala. Cabagna bichtan uqhan dudanian eta ainguruya barnen sartcen jqhousy, etcholhary emequy hullentcera deliberatu nian eta guibelian boter behat gorde nintçan.

- Joan direa othian?

Bay eta hurrun dira engoity, ordian hasy lana acaba deagun. Eta aphain...

Eta çilo batetariq jqhousy niçun debruyaren jtchor buruya sanqhartian eta jntçiriaz entçun nititgun debrua sarthu eta jalghy cenian. Guero barnen entçun nereçun.

- Content çutuguya?.

- Bay.

Ny ere oretzaz. Eguia da berthuteaq hon jssateco, çabal behar diala jçan eta barnaxu debruya hantiç jalqhy daquion.

Guero chendan aguertu cen alhabouna, hamalao ourthe bat eta cabagnan sarthu cenian, botiçaq berrys hasy ciren.

- Ore unguruya eguin dun. Onxa heltcen ys, houn-guy jys. Oray emaq lanary, chahacoaq deshanturiq ditigna onxa hant etçan.

- Asqy, asqy malerousa, gaintituco dutun.

Eta berrys jntjiriaq hasy citutçun eta by çaqhur ary lothuriq jqhousy nintitçun. Ceinhatu nundugun eta cabarnetiç entçun.

- Ordu dignagu lilia, hiroureq hebentiq joaiteco.

Eta niq jguitceco aissinariq eniala, joan ciren. Hantiq dembora laburretan fraiden prosesiene bat horra cen eta harrituriq nindagoala es neren aithortu nahy jssan, jqhousi nianiq deousere, segur espeininçan sin-hexirik jssanen. Erran neren esnequiala norat galdu ciren eta oyhus hasy ciren.

- Miracuillu, Gincocq benedicatu gutu, saintia phisstu eta bere ganatu beitu.

Comentiala sarthu ninanian nor guerthatu eta nola aguitu cen oro aiphatceco phartez nouretaco escribus

eçartia deliberatu nian, noure contçentçia solajotu cedin.

Jey eta besta franco ederriq jssan citutun eta harrisco ermitha bat eraiquiten hasy gintutçun, çoinian saintuyaren orhimentcha beguiratuco cen eta ny ermithain eçarry nindicien.

Ermithaingoaco lehen neguia hasyriq, gau bates, nes qatchouna bateq nore bortha jo cianian eta hola mintçatu: -çore gana gin nuju beqhatu ahalquegarry baten cobesatcera- Campoan tempesta gai bateco thempora gaistua çuçun sareray nigun.

- Anaye, cabagnan ermithainaen cerbutçary ninçalariq, by lanqheya banintitjun; bataçuçun jente malerousaq, andere antguyaq eta paralisatuyaq non baciren jagitia ermithainaq bisita letçan; biguerren lana chahacoen hampatcia niçun: chahaco haietan beicen miracuillu hora begiratcen. Bena behin edo berrytan hanturiqueguys hustu nitiroton. Guerostiq eta gousta harturiq, aldy oros eta ahal oros biçio ixousy hortan erorten nindugun.

Fraidia qhechu bere hoguey ta hamaby posicio-niaq espeičutian eguiten ahal. Egun bates qhechian qhampoia eman dereit. Bide luçe eguiniq çore gana

gin nys beitaquit çu ere jaquintxa cirela eta aldica niq...

Haorray pharcatu, neron, haren ganiq miracuillu eguiteco maneraq jqhasy nititçun eta noure aldety jragaxy niroçun oracioneaq behar den gisa emaiten. Bena es deret noure fraide laguner deous eracouxy ceren jaqin. balece es direla oraciones giten, bena chahaco batietan hartu edary baten medios, galduri nissate.

Guerosty duda laçgarry bat badut: ermita eraiquitce haxarrean, laborary udurico bat emaçtiarequy harguin lanialat giten cen: emaçtiaq baçiçun ainguruyaren eguite handy eta senharra ere nombait jadanig jqhousy neron, bena noure ermitalat nescatchouna aguertus guerostic by laborariaq estira jagoity harguin lanialat gin.

Goic hontan noure nesca-aorenary chehetarçun çombait galthequineco dereitçot eta...

*(Heben finitcen da paperra, beste arastacua erreic
issan da.*

*Cet copy la fet sieur Pierre Mingorry
du lie d'Agherrune, le 18 davril 1745.)*

AMETSA

Pierre-k begi bat ireki zuen, gero bestea. Goizña-barra zen dagoeneko, baina haren aldamenean Marcelle, haren emaztea, lo betean zetzan oraindik. Apur bat gelditu zen hari begira: adats oraila buruko zurian zeukan nahasmahas, aurpegiak nekatuxe itxura zuen... Berandu oheratu ziren bart; haien ezkontzaren urteburua zen atzo eta adiskide zenbait abetaldutuzten arratsaldean; gero restaurantean afaldutuzten -ezkondu baino lehen egin ohi zuten bezala- eta dancing batean eguna amaitu.

Pierre ondoez batean zegoen. Gehiegi jan eta edan zukeen edo. Eztarriak kilikatzen zion, gehiegi erre zuen ausaz. Exeri zen ohe bazterrean, gogoetatuturik. Zoriontsu izan ote zen ezkonturte hortan? Ezin esan zezakeen. Oroitzen zen Marcelle, bere emaztea, nola ezagutu zuen. Alkarrekin bazkaldu ohi zuten, lan-tegiko jantegian: hor zuten alkar ezagutu. Arratsez, lanetik ateratzean, batak bestea igurikitzen zuten eta zenbait aldiz ostatuan sartzen ziren edari bana hartze-ra. Geroxeago Pierrek zinemara eramane zuen. Noiz maitemindu zen hartaz? Baina maitemindu ahal zen

egiazki Hurbilkiago so egin zion; lo zegoen beti, gau-jantziaren xamarra askaturik, bular bat ageri... Sorbalda ukaldi bat eman zuen Pierrek. Egia esan, ez zen neskazale amorratua; ez eta edarizale, ez eta kirolzale... Haundia-zerihain zaletasun gutxi eukitzea ezertarako! Herabe edo alfer ez haatik. Aitaren aholkuari jarrituz, lankide-eskolan sartu zenean ikasle ona izan zen; baita orain, lantegian, langile eta zintzo beti... Bizia aski ondo irabazten zuen, hori bai.

Behar bada, ez zen Marcelle-z maitemindu, baina bidezko da «neska bat eukitzea» hogeitau urteko mutil batentzat. Behin ausartu zen neskatila bere etxera eratortzera; gurasoek nekez gerokotu. sosekin kanpoan erosi etxe txipi batean beren egunak bukatzera joan zirenetik, berau ere haiekin bizi zen. Eta Marcellek etortzeko deia ohartu. Irrifar egin zuen Pierrek, egun hura gogoratuz. Gisakoa zen Marcelle, oro har... Handik hilabete zenbaitetara ezkondu ziren, hori ere bidezko bait da. Bien gurasoak ezteieratu ziren; neskarenak kanpokoak ziren, txintxotxintxoak, pozik alabak senar jator, langile bat bildurik zuelako. Eta ezteiliar ziren bizpahiru lankideak ere oso pozik zeuden. Pierre eta Marcelle, biak lagun onak zirelako, eta

gauzak haundizki egin zituztelako... zer jan, zer edan bazen; gero dantza eta kantaldiak.

Geroztik, biziak jarraitu zuen, gertakari handi gabe, bi ezkonberrientzat. Ondo alkar aditzen zuten. Etxeko andre on agertu zen Marcelle. Nahi izango zuen, naskil etxe eder eta handiago bat, oraindar tankeran antolatua. Irabaziak, ordea, urriegi zituzten hortatua. Irabaziak, ordea, urriegi zituzten hortarako; biek lanean jarraitu zuten, ezkondu aurretik bezalaxe. Igandetan zinemara joaiten ziren, batzuetan dantzara. Auhenska ibiltzerik ez zuten orraitio, nahiz zenbait aldiz doi-doi heldu hilabete azkeneraino. Ezen Marcellek jantzi dotoreak ere maitexka zituen; hori zuten bien arteko liskar aitzaki bakarra. Baina Pierre ez zen bate-re aserrekor, eta liskarrok ez zuten irauten. Gainera, goxo da andre apain batekin irtetzea igandetan...

Gogoan zerabilen ez zela hain gaizki bizi; lankide haurdun asko baino hobekiago. Berek haurrik ez zeukaten; ez eta nahi ere, oraingoan behintzat; gero ikusiko. Baina oraintxe zeuden bezala, goxoki bizi zitezkeen, bi-biak... goxoki bizi ziren...

Gaur haatik ondoezik zegoen Pierre. Goizegi esnatu zelako ote? Ala Marcelle bere aldamenen oraindik lo zekusalako? Ez zen eiki txit ederra horrela apainga-

rririk gabe, aurpegia engoitik zimeldua. Bata besteari hain hurbil izatea! Bere emazte, bere bizi-lagun eta ohe-laguna... Eta, halaz ere, harengandik oso bestelakoa zela bera irudi zitzaion, oso beste bat. Haragizko lokarriak ez zituen beraz batu, pozik irakurtzen zituen astekarien esakeran. Txorakeriak! Gizakiak ezin ditezke bat; bakoitza bera egoiten da, beti, halabeharrez.

... Bere buruaz kexatu zen Pierre. Zer? Burmuinzaletzen ari ote zen orain, horrelako gogoetak alatzeko? Ohetik jeiki zen, emeki, emaztea ez esnatzeagatik. Ezbaian egon zen pitin bat, gela erdian zutik, ez jakin zer egin. Gero joan zen erosi berri zuten pick-up ederrera -epean erosia, bixtan da- eta ospil bat ipini zuen, beste edozein baino areago laket zitzaion ospil hura. Kantariaren andre-abots ikugarriak gela isilean hotsegin zuen:

Mélancolie, un jour s'achève

Mélancolie, un jour s'achève

Mugonez ohartu zen goiz zela oraindik; ez zituen auzoak iratzarri behar ez eta Marcelle ere. Lozale zen hau eta estakuru bilatu ohi zion senarrari, ametsetan

hitzezin eta esnatzen zuelahotsez. Irratia beraz behe-
ratu zuen. Begiak itxi zituen erosoago entzuteko:

*... chaque jour, dans la fumée et dans
l'alcool, on noie ses peines...*

... alkoolean lorrak itotzen... Eta zergatik ez? Zer-
tako besteek bezala ez egin? Ez zegoen ongi, bene-
tan, egitan. Behar bada edateak lagunduko zion.
Sukaldera joan zen, koinak bonbila eta edontzi bat
hartzera; edan zuen pixka bat eta gero oheratu zen
berriz, bonbila eta edontzia ohapean utzirik.

Ospila arnaitzera zen. Ohetik jaiki gabe pick-up-
aren besoa atzeratu zuen eta beste aldi bat entzun
zuen. Gero beste bat. Eta edan zuen, gehiago.

... Sorgor zegoen ezindua. Soinez behintzat, ezen
gogoa inoiz baino bizkorrago zeukan. Alkoolaren era-
gina ote? Nahi ta nahiez, hasi zen pentsatzen behine-
re pentsatzera aursartzen ez zen gauzekin. Zergatik
ez zen ausartu bada? Oroen buruan zer biziera ilaun,
gertakari gabekoa berea! Nolaz ez zen hortaz orain
arte konturatu? Guzia beti berdin, egunero ordu
borean lanera, egunero lankide berak, egunero hizke-
taldi berak, egunero emakume bera etxean!

So egin zion berriz ere, bere ohean zetzan emakumeari: itxusi zen benetan goizñabarreko argi ilunean, ahoa erdi zabalik kulunka lo. Baina bere emaztea zen, hari loturik zegoen ezin hautsizko lokarriez, loturik betiko, inoiz ere ez, zen askatuko... Inor ez dela aske? Edonor, sendi, buruzagi, aberri, ezkontide edo ahaide bati loturik dela? Zer zeritzaion berari! Ez zen edonor... Bere haurtzaroaz gogoratzen zen, ume eskolan zebilela. Mentura liburu ederrak irakurtzea maite zuen orduan; baina berak ez zuen sekulan menturarik ukan. Gertakari haundiak jazo ziren munduan, gudak, borrokaldiak, baina berak ez zuen haietan parte hartu, ezertan ere ez parte hartu. Noren erruz? Gurasoen erruz: «bide zuzena» joerazi zioten beti, bide hori ordea bizitzako gauza eder eta haundi guztietatik baztertua dago. Irakasleen erruz: horiek ere bide zuzena erakutsi zioten... ezdeuserako. Eta Marcellen erruz! Neska ergol arrunta. Muxu zenbaiten gatik, bere bizi guzian hari loturik izango zen. Izugarria Irudi zitzaion gau minean murgiltzera zoala eta ihesbiderik ezin aurki... Izugarria!

Koinak bonbila hustu zuen eta, ohartu gabe, ospila oraindik beste bider bat ibilarazi zuen:

*un beau jour, dans la
fumée et dans l'alcool
on noie ses rêves... Pour toujours.*

Baina ez zuen entzuten; negarrez zegoen orain, ezin bestean deus bat zen, bai, eta hori besteen erruz. Marcellen erruz. Urdanda! Urdanda zikina!

...Herotsarekin emaztea esnatu zen. «Zer duke, esan zion grinaturik. Bet-betan hari buruz inguratu zen, besotik oratu eta astinduz. Askatu zen Marcelle eta esan zion berriz: «Baina zer duk? Zoratu ote haiz?»»

Farregin zuen basaki, eta gau minean, alde guzietatik aranotsak sortu zituen haren farreak, abere irri urrundikoak, aspaldikoak alegia. «Zoratu ni? Askatu naun, aske naun!» Oihuz hasi zen bestea. Baina ahoa estali zion eskuaz: «Isil hadi, urdanda, isil haeli!» Harek, aldiz, gero eta zarata gehiago...

«Isil hadi, isil hadi», birresaten zuen, haren lepoa eutsiz. Azkenean, isildu zen; haren burua atzera erori eta han zegoen mugitu gabe.

Bere baitaratu zen Pierre, bet-betan: «Habil hemendik» esan zion emekiago. Marcelle ez zen

mugitu. Orduan konturatu zen gertatuaz eta uste izan zuen zerbait lehertzen zitzaiola buruan: emaztea ito zuen!

Pierre esnatu zen, bihotza pil-pil. Zer amets ikaragarria! Baina nondik dat ozkio horrelako asmo ertzoak gizasemeari, lotan delarik? Bere buruaren isekaz, irri egin zuen. Leihora begiratu zuen gero; goiz argia zen. Alo, biziak jarraitzen zuen egunetan, bezala; lana, lan-tegiko lagunak eta Marcelle. «Marcelle! Zer muturra egingo du ene ametsa jalgiko diodanean!» (Ez zion haatik guzia jalgi nahi...) Haren aldera inguratu zen, alaitua. «Ea, -esan zion eztiki-, ea, Marcelle?»

Hila zen, zintzurrian eta besoan aztar urdin batzu zeuzkala; bazetzan erdi bilutsik, begi margulak zabal-zabalik. Gizona zutitu zen harriturik. Gela miatu zuen arrotza bait litzakeen. Hor zegoen pick-up berria, ateak irekirik. Hor zen koinaka bonbil bat hutsik, oha-pean.

Orduan?

Ohe ertzean exeri zen Pierre, burua eskuetan hartuz. Behin batean... alkolean... ametsak ito... betiko.

UR BAZTERREAN

Badaki urak, urtedun aintzi ohentsuetan eta lats humeetan berdin, badaki gizonari giza-elez hitz egiten, bai hitzemaiten ere... Eta mendi soildu haietatik apar zuritan datorkigun uhaitzeon, beti, atzo bezala gaur, bihar gaur bezala, bere ibar loretsu hontatik iragaile, Mari Urraka bide da mintzo, isolaren mintzoz, batean samur samurra, emakume maitemindua antzo, bestean isaz eta isekaz, txarra: zeren jainkomea bait da.

...Ur bazterrean etzanik zetzan Jakes mutil gaztea. Urez ikusten zituen bekoki-begi-besoak, eta urak ikusten zituen urruneratzen. Haren baranoan alai zeuden lili zuriak, alaiago lore gorriak, batik-bat hatz puntekin laztantzen zituelarik hego-haizeak beroago eman arte behintzat... Orotan irrifarrez zegoen Udaberria, Jake-sen lepotik farrez.

Uhaitza, berriz, ez zenuten inakaz egun hartan; ezti eztiki zerasan, eta Jakesek, ai!, entzuten zuen jainkosa aldakorra ur soinu ezaten, birresaten «ator enekin... ator enekin!»

Baita mutilaren gogoia erantzuki:

- Sorgina, Ama, deitzen zaituzte jendeek, gaiztoa zarela hotsez. Gaitza zer den ez dakite. Nola, ba, baldin beren liburu, eskola eta tenpluetan onaren berri ez badute ikasten, gero jotzen edo mintzen edo hiltzen dutenean, beti onaren onetan bait dute egiten? Bestenaz dut nik ikasi.

Anartean suskurtuz zirauen uhinak: «ator enekin... ator enekin... ator enekin...».

Baina musker ziren artoak, ejer ziren lore gorri eta zuriak, dantza-lagunen zain dauden neskatilen antzez, eta ortze-goietan, txit epelik, txit epelik, Eguzki Gaztea... Jazartzen baitziren hainbat bedats aldiari aita Jakesen haragizko soina eta bihotza oro. Ondikotz! gizon bat besteak bezalakoegi zenuten hor, uhaiz-ertzean...

Ezen, soa uretan galdurik zegoen hortan, bihotz begieiagertu zitzaien arto errainuen artetik ikara; ez Undinaren aurpegirik, gizalaba baten musu pollit, ituna baizik; eta bere gizon bihotz zolan ezagun zuen mintzoa, ez lamina, bai ordea neskatx abots bat, hain ilunki, hain ilunki, hain ilunki!

Botz bat entzun dut xarmantik

Bardarratsian ametsetarik

Eztitarzunez betherik beit'zen...

...Baina oi! zein mingarri izan ohi dira ahorik ezti-
nak ere, soilik entzuten eta isiltzen dakienarentzat.

Oixtion, auzo-herritik igarotzean, lagunetikiko
batarleku zuen ostatuan sartu zen Jakes eta han,
elestan ari zirela, norbaitek esan zuen: «Bihar ezkon-
tzen da Etxeoreneco Joana». Orduon, denek begiak
eraiki eta Jakesi begiratu. Alferrik; honek ez zuen
hitzik ihardesi, lagunok aldiz etziren begitarteetan ira-
kurtzen dutenen hariako. Joaitera utzi zuten, Uhaitz
aldera joaki.

Bihar ezkontzen da Etxeoreneco Joana, ez Jakese-
kin haatik. Ongi dago. Ez ahal zuen berak horixe nahi?
Ez ote zituen bere Lege Berriak haien lege zahar, uha
zahar, zaharkinak oro ezeztu? Beranduegi orain. Bihar
gauean, gau luze baterako, ezagutu duen gorputz
otzen hori gizon gorputz baten alboan etzango da
-senar baten alboan-, eta deusik deusek ez ditu gero-
nean bereiziko, ez Jakesek, ez eta haren legeak ere,
zeren ez baita bereizi behar Jaunak alkartu duenik.

Saiatu zen Jakes inguruko arte-zirtoinak zenba-
tzen, baina bata besteari muxuka zihareluten gelditu
gabe... Hartu zuen lore gorri bat, lili zuri bat gero, biak

belarki batez estegi, eta lore-sorta bikoitza uhaitzeko uretara egotzi, urek zeramatela so egonez, liluratua iduri, kantu hitzok ohartzeko ezpametan:

*Bard'arratsian ametsetarik
Botz bat entzun dut...*

Bart arratsean, eranegun aurreko arratsean... amets bakar bat (amets hutsa ote?), abots bakar bat, amai-ele latzak esaten zituena; baina hain ilunki! Eta berak ezin erantzun, bere haragi arimek oihuka ziotena ezin erantzuneraz:

- Enetxoa, bihotzik ez neukala uste zenuen... negar gaziak ixurtzen zenituen enegatik; hain emakume baitzara, mintzatu gabeko hitzenezako belarri gabea... Jakin bazenu!! Neure bihotza zen mila gaizkinen gudalanda, baina maite zindudan maiz; zeure gorputzaren haraindiraino ere; maitego zindudan edonor baino; maitatu zaitut sinestunak Khristos maite duen baino areago; maitatu zaitut nola... tximistak maite duen urratzen duen lainoa: zuk ordea beldur-emaile nindaukazun!

Zintzoa omen zara. Zergatik, arren, ene izan zara? Zertarako negarrok, enetxoa; orain beste batena izan

behar duzu? Eta leial egongo zakizkio, hari zintzoa beti... eginkizunak eginaz... bizia hautsirik, baina zintzoa beti! Oi, nolaz hain txintxoak, nitzaz maitatu hori?

Farregarria... gaur ni nauzu etorri, bihotz gabe hau, dei egile doan uraundi hontara; farregarria, antza!

Zutitu Zen Jakes eta, ahapetik, beste norbait aipu bailukeen, esan zuen berriz ere: «Bihar ezkontzen da Etxeoreneko Joana. Baita eztei haundiak izango dira: badukete zer jan eta zer edan ezteiliarrek; badute daritzatuko auzo jende gazteek; ezkon-andrea, ordea, itun-ituna, soineko zuriaren gatik».

Orduan, mutilak sakonkiago so egin Zion uhaitze-ko urari. Urkusi zituen, irkaitz batekin, aldamenean ziren lore politak eta arto muskerrak eta ibarraren bi aldetako muno argiak ere...

* * *

Eta hona nun zuen auteman loreak zimeldurik zeudela, txut eta mutiri, muxu denak akiturik, arto zirtoinak, eta gau ñabarrak iluntzen hasi zituela munoak eta munoetan sakabanatuta ziren etxe-arbel hega-

tzak. Eta gogoari mintzatu zitzaizkion loreok, hitz zuhurretan (bai garratz zela loreen filosofia).

- Oro hilkizun dira, polit eta ezti direnak oro: nesken irriak, haurtxoen irriak, arbel-hegatz peko zoriontxoak gizon-emakumeen alkarmaitatzea -eta gu ere zoritxarrez... Eroa! ez zenuen horren betilun izaterik gure gezurrezko pozaldiari behatuz, oixtion, ezta horrelako ametsak bihotzean edukitzerik, oi, eroen eroa!

Mintzatu zitzaion uhaitza ere eta Jakesek ulertzenago zuen aldi hontan zer zerasan azti zaharrak, ezen haren abotsa ozenago zen eguzki apelarenak dantzarazten duen hego-haizearena eta udaberri guziarena baino. Hona zer zioen:

- Oro hilkizun dituk: iragankorrik baizik ez dut iraunkor. Eni begira, nola lore zuri-gorriak, arto muskerrok eta, noizik behin, hurbiltzenegi zaidan gizakumeren bat eroaten ditudan, ezdeuserazten... Sorgina nauk baiki Zori-egilea, indartzale eta indardunen zale hilkizunen hilgarri: polit denak, ezti guziak, makalak oro, puskatzen ditiat, beren zorakeria eta zintzokeriekin batera. Zuzen duk hori, nahiz gehienek ez ezagutu zuzen dela nire zuzengabea, eder nire oldarra. Ezagut nazak!...

Ur bazterretik aldegin zuenean, jakesek arima mukurru zeukan, azali berriz bete. Zail senditu zituen zainak, gogor gogoa, eta gudalanda izandako bihotza baketu zen azkenekotz. Honela igaro zen hauzoerrian: burgoi eta zangar.

ZAZPI GIZERAILE

- Nere eskuinaren laguntzaile honen gabe egin nintzen -erran zuen leen gizeraileak sastakai luze bat sakelatik atera eta- nere gaztaroan, herri zahar bateko aitonenseme iskilugilearen baitan. Aitzinako Historiak eta Antzeak dirdir daragiote. Eskuan tinko datxikadala, ilargi gutiko gauetan, aihertu gabe dabilenari hurbiltzen natzaio atzetik, eta bizkarrean emaiten diot, ukaldia. Zenbait aldiz oihu egiten du hil baino lehen, heuragi bozkariotzen bainau haren oihuak; beste zenbait aldiz ez du oihu bakar baten egozteko astirik ere, bertanbehera erorten delakotz ene oinetara, eta orduan, ene trebetasunak atsegiten dit.

Gizeraile lagunak beha zitzaizkion, beharri alter bat baizik ez emanez, ordea, haren eleetara. Areto zabal, bikainki apaindutako epelean ongi zeuden; elkar arteko adiskidegoak bihotza ezitzen zien. Lehen mintzatua olerkari bat zen, haren mintzo lilitsutik ageri zenez, baina beste guziak gizon hotzagoak, benagoak ziren. Sofa edo ohe apaletan eroso etzanik, gazteenak kadiretan zaldizka jarririk, hor zeuden, irrifar gozo bana ezpainenan, aitzineko egun lanpetueta-

rik landa atsedean, aitzineko egun lanpetuetarik landa atsedean hartuz ondoko egun lanpetuetarako; gizona ariak ziren. Denek erretzen eta edaten zuten gogotik, lekor batek: erikor izaiki, bere osasunari begiratu behar zion honek. Geinratikoek habana luzeak erretzen zituzten. Etxeko jaunaren morroin zaloinak, habanak ilaunduarau berritzen eta edan-ontziak hustu-arau betetzen zizkien.

Bigarren eta hirugarren gizona leek labur-zur azaldu zuten gero berak nola ari ziren gizona ketan. Hantuskeria gabekoak izan arren, zintzo-zintzoak ziren biak beren langintzan. Barrandan jartzen ziren etxe-kantoinetan; iragaile soil bat zekusatenean, gaitzeko kaska bat emaiten zioten burutik behera eta kaskatik hiltzen zen. Batak burdin barra bat erabiltzen zuen helburu hortarakotz; besteak gomazko bat, malgu eta berunez loditua. Tresnok atera zituzten sakelatik lagunek ikus ahal zituzten. Behala hiltzen ziren haiez jorikoak, gizon sendo, azkar eta beso zaintsuak baitziren gizona biok.

Haien azalpenak, gizona bideak nahi duen araura, isilik entzun zituzten beste gizona leek. Baina jadanik ezagutzen zituztelakotz, apur bat aspergarri zitzaizkien eta, azkenean, gizona gazte, dotore jauntzi,

hilo gorrats batek hitza moztu zien, honela mintzatzen hasi zelarik, pistola gotor bat sakelatik atera ondoan:

- Jostailu honekin -erran zuen- garbiki eta xahuki eraiten dut nik. Zuek leze-aroan bizi zarete oraindik, dirudienez.

Eztul egin zuen bosgarren gizeraileak, mintzatu nahizela adierazteko. Gizon oso jakitun bat zen hau; jakintzaren seinale zituen bere buru-gain karsoildua, bere begiberin lodiak eta besapean beti zekarzkien liburu jakintsu haundiak. Hitz gutikoa zen hala ere: erraitekoak argi eta garbi erraiten zituen eta erran behar ez zenik ez zuen erraiten. Txirrista ttipi bat, ixurgai hori batez erdibetea, atera zuen sakeletik, guziei esaten zielarik:

- Hauxe ene metodoa.

Hartaz norbait ziztatzan zuelakoa egin zuen gero, eta norbait hur hilotz erortzen zelakoa. Eta txirristak zitaldosis hilgarri bat edeitan zuela entelegatu zuten haren lagunek.

Baina engoitik hitzegiten hasia zen gizeraileetarik seigarrena. Hura zen erikor izaiki bere osasunari begiratu beharrean zegoena; eta nahiz minik ugari jasan, eztiki mintzatzen zen beti, hain baitziren haren egonari eta gogoindarrak handi. Haizkolari bat zen, erran

nahi banu, eran behar zituenak haizkora-tikaldika sarraskitzen zituela. Tresna irausgarri bat asmatu zuen hortarakotz eta haren zatiak beti berarekin baitzeduzkan, sakelatik atera zituen eta elkar juntatu, haizkora nolakoa zen beste sei gizeraileek ikus ahal zezaten. Lankai arrunt, moldegitz samarra zatekeen -berak aitortzen zuen-, eta herio lanik ezin zezakeen hartaz hirietan edo gune agerietan egin; oihan eta basabazterretarat joan behar zuen jendeen eraitera. Haatik, estakuru hortaz lekorean, gogoia betetzen zion haren haizkora-jokuak, eta gainera oihan eta basabazterretako alde garbiairi esker, osasuna hobekitzen ari zitzaiolakoan zegoen.

Hartarik landa, zazpigarren gizerailea mintzatu, zen, beste gizeraile ororen gehien eta buru baitzen hura, buruhandi ez zenetan behintzat: ezen edariari emana zen zoritxarrez. Alta ulermen bizkorreko eta nahimen bortitzeko gizon bat zen besteetan; akats itxusi hura ukan ez balu, ez zazpi gizeraileren buruzagi soilki, baina bai zazpitan zazpirena izanen zen ezbairik gabe.

- Bai, mutilak -erran zuen-, esku trebe zarete guztiok gure langintzan, eta burgoi, harro izanen naiz beit zuen buru naizelakotz. Hala eta guztiz ere, gizeraike-

tan neure jokabidea zuenak oro baino xahuago, zalua-
go, egokiago eta pollitago dela ezagutu behar dida-
zue. Lepoko hau -eta erraitearekin, altzairuzko hari
mehe bat atera zuen sakelatik- gizagaizo baten lepo-
inguruan aurdiki eta tinkatzen dudanean, berehala,
batere ohartu gabe, zentzen da. Joku hortan ez dut
behin ere txil egin. Baina aski da ele alfer horietaz.
Urkabetik zintzilik dagoen urkatua bezain nabari baita
ene jokabidearen nagusitasuna.

Zazpi gizerailetarik bakoitzak beraren metodoaren
onura eta alde onak azalkatu ondoren, guztiak ezta-
baidan hasi ziren, haietarik zein zen egiaz hoberena,
artamendagarriena. Anitz edanik, eta edariak burua
berotutxe baitzien, ez da handi liskar ezin hezi bat sor-
tzen bazen haien eztabaidatik -gizarte orotan maizegi
gertatzen den bezala-; eta azkenekotz, beste gizerai-
leen gehien eta buru zen gizeraille ohientsuak hitz
mingartuotarik deus onik ez zela jalgiko ikusirik,
hauxe erran zien:

- Bakoitza bere hartan tinko dago eta argumendu-
rik bikainenak ere ez dio aburua aldaraziko, buru
gogor baikara zazpiok. Atera gaitezen, bada, eta ikus-
ten dukegun lehen iragaileari galde diezaiozun, gure

metodu bereziak zeharo azaldu eta, hoberena zein den, hartaz hilko baitugu.

Zintzo zelakotz, denek onartu zuten buruzagiaren erabaki hau. Soingainekoak, burutakoak eta euritakoak jaso zituzten etxeko jaunaren morroin zaloinaren eskutik, eta atera ziren zapiak karrikarat. Begiz jo zuten lehen iragaileari, buruzagiak agindu bezal-bezala erran zioten, eta bakoitza ezin-egon zegoen haren ihardesprenaren erpai. Iragaile hura isilik gelditu zen luzaro, gogoeta sakon zailetan murgildua iduri; azkenean galdetu zien:

- Eta zergatik hil nahi nauzue?

Ordu hartara arteo, ihork ez zien gizeraile horiei horrelako galderik egin eta ez ziren guti balditu haren entzuteaz. Nola-ere-bait ihardetsi behar ziotela baze-kiten, baina zer ihardets ez zekiten. Elkarri so egon ziren hor, begiak borobildurik eta ahozabalik, ea haie-tarik batez zerbait eridenen zuenez erraiteko on litza-tekeenik. Baina ihork ez zuen eriden. Eta haien harri-duraz baliatu zen ehan behar zen iragailea, bizirik eta bizkorrik, beste galderik egin gabe, ihesari emaiteko.

Gizeraileak haren ihesgoari ohartu zitzaizkionean, engoitik urrun zebilen ondikotz! nork daki norat hel-dua. Itzuli ez zen egin.

Etixeratu ziren zazpiak, gogo-ilun eta mintzul ibilki. Etxeko jaunaren morroin zaloinaren eskuetan utzi zituzten euritakoak, soingainekoak, eta berriz ere etzan ziren sofa, ohe-apaletan; gazteenak kadiretan jarri ziren zaldizka. Baina hutsegin hori zela zio, hainbateko etsiak hartu zituen guziak, non ez baitzuten gehiago ihoren hiltzeko gogorik, ez ahalik. Beren langintzaren uzteko beharrean aurkitu ziren zorigaiztoko gizeraileok, eta beste bedera bilatu zuten. Bata perzegile egin zen eta bestea oskigile; bata apez eta bestea auzapez; bosgarrena sugezoratzaile egin zen; seigarrena hobi-zulatzaille. Baina nehoiz ere ez ziren beren langintza berriotan etxekotu, eta ondore onik ez zitzaion batari ere agitu. Zazpigarrenak, aldiz, guztien gehien eta buru izanik, zaharregiz ez zuen lagintza berririk ediren: handik goiti eskean ibili zen, gosez ez hiltzeko doia nekez irabazten zuela, lehen giza-lepoen inguruan xederaren egozteko hain trebe ziren eskuok iragaile bihotz gogorrei hedatuz, egun guztian.

ZINOPA

Etxera zoan hiriko karrika hutsetarik zehar, baka-
rrik eta berant. Hiri-alderdi bazter batean bizi zen,
oihan zabal bati hurbil. Oinez joan behar zuen, jakina,
ordu berandu hortan. Egar-sutan zen; kafetxe guziak
engoitik hertsirik zeuden, ordea, eta etxeratzeaz bes-
terik ez zuen. Urrats lazoan zebilen. Ezin erranezko
akidura bat nabari zuen bere gorputzaren atal orotan,
eta gogo onez jarriko zen karrikaren bi aldeetarik han-
hemenka ezarriak ziren zurezko jar-leku haietariko
batean, hirizain batek hor ikusi, paperak eskatu eta
mozkor bat zelakoan jaikiaraziko zuela beldur izan ez
balitz.

Ez zen, aldiz; ohoinen edo gizeraileen -atzerritar
zital andana bat etorri zen, azken urteotan, Hirirat
bizitzera edo beste gautar gizatzen beldur; eta
beste irriskurik Gauak gorde dezakeela, bere itzal-
zoko barneetan, ez zen jelosten ere, ez zen irudimen
biziko mutil bat. Bestelan ez zatekeen hain beratx ibi-
liko, bakar beranta, karrika huts eta beltz horietan.

Irudimen joriago bat eduki ukan balu, ohartuko
zen, behar bada, gaua beltzago zela urteko garai har-

tan ohi den baino, eta lanpadariak ez zutela aldean dilindan iduri zegoen susko borobil bederaz beste argirik egozten lurgaina eta lurgainean zebiltzanak ilunpe osoan utziz. Baziren ibiltzaleak. Behintzat bat bazen, haren atzetik etorki: oinkada astun neurtuak ondo entzuten ziren, nahiz urrun samar izan oraindik. Gogo apalagoko norbait berari jarraikiz zebilela uste ukanen zuen, urrats berberean bait zetorkion atzetik.

Pentsu horrek farre eragin zion. Beste ibildari gauzaleak gogoeta berdintsuak zerabilzkeen irri apal bat egin baitzuen hark ere. Ala ilunaren beldur ote zen hura, irriz eta kantuz izuak oro uxatu nahian? Ezen kantuz hasi zen; hobeki eginen zuen, egiaz, isilik egonik: agure bat zen, hotsetik ezagun zenaz, eta haren boz luto, erlatsuak ez zituen sentimendu atseginak ekartzen giza gazte baten gogorat. Kantu edo kantika horren entzuteaz, bet-betan ahaztu Zitzaizkion bizi-tzako zorion guztiak, eta ihoiz oinaztatu zuten zorigaitzak oro itzuli zitzaizkion, bizi-biziak, oroimenerat.

Bazebilen, gogoeta goibelik asko arima-zola urdin-dutik buragertuak alatzen zituela, karrika huts, beltz eta luzeetan gaindi. Beranta zen, baina gehiago ez zegoen bakarrik; norbait zetorkion atzetik urrats berberean ibili izan balitz bezala. Kantua eta kantuaren

oihartzunak isildu ziren azkenekotz; behar ere, Gogo-eta goibelak mailka itzali ziren eta atsedean apur bat hartu nahi ukan zuen. Atzetik zetozen urratsak gelditu ziren berehala: bazirudien ihakindatuz zebilkiola agure makurra, eta hasarre batek hartu zuen haren makurkeriari oharturik. Higuingarri zen agure hura. Ibiltzeari ekin zion harzara: besteak halaber egin Zuen... Orduan inguratu Zen eta besteari buruz joan zen, joku ergel horri amaiaren emaitzekotz. Ukabilak borobildurik, herraz beterik, joan Zen hari buruz.

Izutuko zen edo, haren oinkada higuingarriak ez baitziren gehiago ezagun. Zeihar-karrika batetik aldeginik zatekeen. Ala barrandaz ote zegoen ilunpean gorderik goaitatzen? Aitzina joan Zen ezinbestez; eta kasu handirekin zebilelarik, iluna zela kausa, huna non entzun zituen berriz ere oinkadak, urrats berak, haren atzetik zetozenak. Harriduraren harriduraz gelditu zen bigarren aldikotz, eta igurikitzen zuen araura, oinkada hek ere gelditu ziren. Eta bihotza ttipitu zitzaion orduan eta ihes nahi zuen.

Ondikotz. Edozein bide har zezan, laster urrats astun, neurtu higuingarriak entzuten zituen atzean eta zazpitan higuingarriago! Jarraitzalearen kantu oie-zak ere entzuten zituen, eta haien oihartzun ozenak.

Eskuin jo, ezker jo osoro galdu zen azkenekotz. Bere egoitzatik geroago eta urruntzenago zela aiher zen. Lanpadaririk ez zekusan gehiago; zuhaitz lerdenen isla beltzagoak susmatzen zituen, aldiz, ilunpe beltzean. Oihanaren erdian zatekeen. Ortzean ez zegoen izarrik, ez ilargirik. Lurrean ez zeuden zuhaitzak baizik eta bi ibiltzaile, bata bestearen atzetik.

Ihon ezin geldi. Are nahiago zituen urratsok eta kantuok entzun, orduan segur baitzen, bederen, urrun zela beti. Geldituko bazen, berehala geldituko zen bestea ere, eta haiduru egonen. Ezin jasanezko nazka emaiten zion zain eta haiduru zelako pentsuak berak.

Oihanean ingura eta ingura, gorputza ezindurik zedukan, oinak geroago eta neke handiagoarekin aurrera zerabilzkien. Sasietako elorriek alde orotarik sistatzen zuten, eta zuhainak ere haren etsai ziren, bidea eragozten ziotelarik. Behin behaztopatu zen eta erori, burua harri gotor bati kontra joaz. Alditxartu Zen. Bere baitaratu zenean, ezin higi zitekeen. Eroriak, akidurak eta izuak zentzua nahastarazi zioten. Oihan barne guzia argi betean zekusan, zuzi goraz argiturik. Eta gizon bat zegoen haren oinetan, zaharra, handia, bilo-bizarrak urdinak. Zai zuri batez jauntsirik zegoen, gerrikorik gabekoa. Urrekate bat zeka-

rren lepoan eta hartarik dilindan, urrezko eguzki-gurpil bat, esmeraltez ederragotua; bi ahotako haizto bat zedukan eskuan, punta lurrari buruz emanik. Gizon horrek behatzen zion, eta gorrotorik, aiherkunderik edo beste gizasendimendurik ez izan arren haren soan, bihotza izoztu zitzaion haren begien pean.

Azali bat entzuten zuen, hor zetzalarik zauritua oihaneko lur ezearen gainean. Hitzak ez zituen ulertzen, ezagutzen ez zuen hizkuntza batean zirelako, ozena eta zahar-antzekoa.

Indar bat zedukan azali horrek, oihan guzia eta inguruko herrialdea eta lurbira haren neurriaren araura bizi baitziren. Eta hiltzen. Eta berpizten. Gizon zahar, zuriz jauntziak zuen azali hori kantatzen.

Baina emeki-emeki entzungaitz egin zitzaizkion neurtotsak eta gizon zahar haiztodunaren irudiak aldegin zion ikusmenetik. Min zorrotz bat senditu zuen. Itsas zabal gorri batean murgildu zen, itsasontzi zoritxartu baten antzora.

Oihanzain batek aurkitu zuen biharamunean, hilotz eta odol-husturik, zuhaitz eder batetik zintzilikan; beso biak bizkarrean estekaturik. Bere diru paper eta gauzak oro sakeletan zituen uki-gaberik. Polizgizonak gehienik harritzen zituena, aldiz, zauriaren

itxura zen: eguzki gurpil baten antzean haizto ukaldi-
ka bularrean egin izan zitzaion; zauri hartarik ixuri zen
haren odola, eta Herioa sartu zen haren gorputzaren
ondoraino.

Egiazko damua erakutsi zuten haren ahaiden, eza-
gun eta nagusi guztiek, mutil zintzo, atsegin, langile
bat izan zelakotz beti. Goian bego.

GAIZKILE BATEN AZKEN ORDUAK

So egiozue gizon bizardun horri: euskal-makila bat laguntzaile, ba doa urrats geldian; begiak berde zituen eta bizi lehenago, mutil zintzo bat zelarik; hits eta hilak ditu orain. So egiozue agure horri: gogoetaturik dabila; gogoetaturik jarten da, esku-makila bi belaun-buruen artean tinkaturik, belarra makila-buruari kontra finkaturik, oinbide-bazterrean. Haren ganik ihes egizue, jende behar bezalakoak eta batez ere haur jolaskinak, neska pollitak, zakur-gatu etxe-koiak lhes egin eta ez ingura azken so baten emaitetikotz hari, ezen gaizkin bat da gizon antzean. Hona jaiki dela eta ba doa, nizpiratzezko makila urgazle duela, nork daki zein jomugari buruz... Zeruko txoriak mintzul egoiten dira haren iragaitearen ondotik, eta euliak eta eltxoak hilik erortzen dira haren hats zitalaren pean.

Orenak eguerdi seinalatzen du. Jatetxe batean sartzen da; beste gizonen antzera, esku-zapia belaungainean hedatzen du; sudur-zapia sakelatik ateratzen du berinbakarraren txukatze-kotz, janari-zerrenda

hobeki irakur dezan. Bainan, ezer agindu baino lehen, hona neskatoak ekarten deraukola irkaitz maltzur batekin eta burdina-eltze batean, kea dariola, apo-ar bat egosirik. Jan gaberik joaiten da gizona, ezin-esanezko bihotz-minez bete behako bat emanaz neskotari. Gaizkin bat da gizon-antzean, ordea, eta guztiek ba dakite... Hartara lotzen da bideari, itxaropenik eta uste onik ezean. Ba doa taka-taka. Minbizi anker batek oinazeztatzen du aspaldian eta beteriak lausotzen derauko ikusmena. So egiozue gizagaizo horri!...

Bere gaztaroaz oroit da. Gazte-lagunak ikusten ditu berriz, bihotzaren begiak berpizturik. Mutil sinesle, aho garbi, belaun azkarra zen orduan, eta bizarririk ez zekarren bidar-pean. Kristal-nigar-malkoak datozkio begira orduko zorion aratza gogoratzean.

Ondikotz! neska xarmant bat maiteegi ukan zuen... Xarmanta zelakotz emaitzaz estali zuen: urepetentak egin zerauzkion haren laztanen ordain-saritzat; zaiak egin zerauzkion, zedazkoak eta satinezkoak, bai eta beste gauza anitz ere, heurgi maite zuelakotz; eta azkenekotz - haur bat egin zeraukon hoik guztietaz gainera.

Udazkeneko hamabiko egunetan jaio zen haurra, eta ekaitz-egun bat izan zen haren sorteguna. Bainan

aita-ama dohakabeen bihotza are kexuago zegoen element kexatuak baino, sorgin gaizto, ikus-ezinak bildu bait ziren erditubeharrean ohe-inguruan; heien sorgintzak hala eraginik, apo-burudun sein bat sortu zuen neska xarmat zorigaiztokoak. Bihotz-erdiragarri zen, benetan, buraso heien saminaren ikustea! ama baiesle izaiki, aitak, sukaldehaizto batekin haurra sarraskiturik, igandeetako eltzean egosarazi zuen; eta egosten ari zelarik, haurrak nigar-kantu egiten zuen, aintzira-bazterrean apoek egiten duten bezala! Buraso biok egoskina jan zuten apo-burua moztu eta kendu ondoren, jangarri ez zatekeelakoan. Hori eginaz, ordea, Eliza-Amaren eta halaber Estadu aita-ordekoaren lege eta manemenduak hautsi, erautsi, oiripetu zituzten buraso, heiek! Heien gaizkieginak Goitar Ahalmen zuzenen mendekioa heitatzen zuen!!
Joko ez ahal zituen Jaunaren ezpatak???

Jo zituen, behar ere. Zorigaitzerako izan ziren hartarik landa beti. Zorigaitzak eta helgaitzak herbaildu, zainhildu zituzten biok, betierekotz. Behin batean, bere hoben handi-handia ezaguturik, serora sartu zen neska xarmanta, bere azken egunen nigarretan eta bildurretan iragaiteko xede sendo batekin. Baina mutila, ai! nehoiz ez zen onbideratu...

Hala bizi izan da eta zahartu, onbideratu gabeen. Urteak jin, urteak joan, bizar astun bat jaio zaio bidarpean; beteriak lausotu derauko ikusmena eta min bizi gorde batek jan du, pixkaka-pixkaka. Bainan nehoiz ere ez da damuzko ele bat haren ezpainetarik atera eta nehoiz ere ez da damuzko gogapen bat haren gogoan kokatu. Horrengatikan utzi dute gizon eta emakume zintzoek; utzi aingeru eta arkangelu guztiek; utzi du haren aingeru zaindari bereziak; gehiago dena, Jainko Onak ere utzi azkenaz bertze. Eta gaizkinak, lur, ur, su eta haizeetako demonio gaiztoek batzarri egin deraukote. So egiozue: bera ez dea gaizkin bat gizon-antzean? Bizar zorrotz zorritsua euskal-makilaburuaren gainean ezarririk, begi hitsak erdi hetsirik, jarria dago Jentilen tenplu baten hondakinen erdian... Barneko etsipenari emana da osoro. Zeruko txoriek ihes egin dute ingurune hartarik han denoko; euliak eta eltxoak hilik erorten dira haren hats zitalaren pean eta gizon-itzalik ez da han agertuko joaiten ez den artean.

Egunkari bat jalgiten du sakelatik eta irakurten hasten da, susmo txarrez beterik. Beraren heriotzaren berria irakurten du egunkariaren hirugarren orrialdean. Batetik bildur-ikara damako betri ez-iguriki

horrek; besterik, haatik, haren bihozkada kiratsak eta izpiritu-minak lasaitzen ditu, baitaki orain zer egin. Su berritu batez distiratzen du haren soak. Belaunikatzen da lur soilaren gainean, Jainko Onari buruz, otoitz ahantz-ezin bat murmurikatzen dutelarik haren ezpain moldegaitzek. Ondikotz! Satani zaizkio lehenik otoitz-eleak beharriratzen; ifernuzolatik lehiatzen da, sulfurlanoz inguraturik, zeruetako ateradino; bilur bat egozten derauko zeruetako atetikan lur-gainean belaunikatu den bekatoreari... Eta hona lizar bat eraikiten dela, bat-batean, Jentilen tenplu haren hondakinatarik, gizonaren atzekaldean. Hala beharrez, abar gorenari lotzen derauko gizonak bilurra; zaluki jauzi egiten du, burua sokalasterraren erdian iragaiten, zeinatzeko denbora ba du doi-doi, eta hor egoiten da, zeru-lurren artean dilindan, betierekotz.

Orduan zeruko txoriak oro hegal-indarka itzultzen dira urkabe bakan horren alderat; bele bilakatzen dira eta urkatuaren eginen goraipatzen hasten dira, ozenki. Kua-kua kua.

So egiozue, arren, gaizkin izandako gizon horri; zerulurren artean dilindan, hegoi-haizearen erpuru ezuak ferekatzen duela, zeruari lauzpabortz mailez lehen baino hurbilago da orain. Goian bego.

MAITARIEN ARNOA

«Ihardetsi nahi ez didanez gero, banoan erran zuen, azkenekotz samurturik, emazteari so luze bat eman ondoren. Ohetik jautsi zen, dorpeki, eta aterat buruz abiatu. Gehiegi edan zukeen; atzoz geroztik *biek* gehiegi edan zuten, bai; zergatik ez zuen *hark*, egun, batere edan nahi? Eta lehen urratsa burutu ezinik, lurrerat erori zen bere luzetasun orotan, irri egingarri. Baina emazteak ez zuen irri egin. Haren isil egoiteak mutiri eraztenago zuen hor zetzalarik, lurrean burauka eta auhenaka. Nahiago zukeen irri egin balu, ozen eta lutoki ohi zuen araura, eme ardanoi lotsagabetu horrek! Nausa lezan nahi zuen ba, hura ukabilka zehatzeko zio berri bat ukan lezan. Baina ez zuen nau-satu...

Nolarebait, eraiki eta besalki baterat heldu ahal izan zen. Hartan erori, beso-zangoak hedatuz, azkenean eden. Lo egin nahi zuen. Ez hargatik ohen, haren aldamenean... Laster kurrunkaz ari zen. Mozkor ametsen gozoa! Zetzetan atzarri zen ordea. Zerbaitek iratzarri zuen. Iduritu zitzaion zerbaitek edo norbaitek burua eztiki ukutzen ziola... Larri eta ikara eta hotz-

izerditan, egon zen luzaro begiak borobildurik, alde orotara so. Ez zekien zer sinets. Ohe alderat so egin zuen; hura ote zen? Baina ez; han zetzan beti, axola gaberik lo... ala lo bezala?

Joan zitzaion uste gaberiko iratzartzeak jauzerazi herstura; mozkorra atzera jin zitzaion areagotuz. Ahal bezala zutitu eta ohe-bururat hurbildu zen ikur-makurka. Oihu egin zion emazteari ukabilak bildurik: «Hi hintzana?». Ez zuen ihardetsi; hark, amorraturikago, zio-tsan eten gabe: Hi hintzana? Hi hintzana, emea? Baze-kinat hi hintzala. Eni bildur emaita gatik, nitaz iseka egitea gatik, e? Hago, oloak eraikiko ditun, emea... eta beharrondoko bat eman zion, zolia, merezi baitzuen.

Baina orduan ere deus ez zion erran; zelako buru tematuak ez zuen deus gutien iharduki. Harekin mintzatu nahi izan gabe jarraiki zuen solairurat beha. Hark erakutsiko zion, ordea, ez zuela jostaketako gogorik! Halako amorru batek bereturik, hasi zitzaion jo eta jo, burutik behera sabel agertuan, zangar hase-tan.

Bildur zen bezala, ez zion ez hitzik erran ez ukaldirik bihurtu. Eta etsitu zen. Azkena eman zion bere amorraldi itsu horri, oheburuan belauniko erori zen, hatsalbo, bihotzeriturik. Horrelako emazte bat! Zerga-

tik ez zion egun guzi orotan elerik, hitzik eman nahi izan? Begiak hari buruz eraikirik, otoiztuki ari zitzaion:

- Mintza hakit, bai, zerbait erradan!...

Zerendako ez zuen ulertu nahi ez zuela hark gaiztakeriaz joiten, maite zuelakotz baizik? Maiteegi zuelakotz. Barnea beraturik, nigarrez hasi zen. Gozo ziren nigarrok, hainbat edanaren ondotik bere baitarik halako gisan ateratzetik landa. Barkamen eskatzera gertu zen orain.

- Ez hakidala aiher izan, arren, maitea! -otoiztu zuen hipaka, haren burua eskuartean harturik.

Elas! nola sinets ez ziola hitz edo so egin nahi, haren bihotzmina zenar gainen zin?.

Eta halatan ere bihotzmina eztitu zitzaion, bien arteko elkar maitatze eretzik gabeko, besteak ez bezalako, betiko araukeenak baitzuen karia. Gogamen horrek bakez eta ahaztuz gainbete zuen.

Nigarra begietan zuela oraindik, baina arima zohar, joan zen emaztearen aldean etzatera. Apur bat egon zen bere damu gozatuz, emazteari amultsuki behatuz. Bere baitan zioen:

- Mutinean ari hatzait, baina nik barkatzen haut, maite haudalakotz. Haizen bezala maite haut eta botzik niagon, mintzatu nahi ez bahatzait ere, enekin

hagoan ber. Bazekinat enekin egonen haizela. Eta ene heina edan dukedanean, besoetan hartuko haut, musuka janen haut goiz hontan bezala, eta hire gorputz guri ezta bero duken eneari kontra... Lehenik, ordea, utz nazan beste botila baten edatera, otoi! -Hasi zen ñapurki edaten; berehala hargatik, oroiturik emazteari bereziki laket zitzaiola ardo hura, apalki zion, botila eskainiz:

Dastatu nahi duna?

Emazteak ez zuen erantzun. Jarraki zen solairurat beha, isilik. Egun guzian bezala, ez zion aldi hontan ere elerik eman nahi izan. Eta gizona, botila oraindik eskuan zedukala, haren aldamenean egon zen, nahigabeturik. Hutsik zuen eskuaz, samurki oniltzen zituen haren begitartetik eulitzar beltz, firrindari, ase-gaitzak. Hila zen. Goiztirian hil zuen gizonak.

ERESI KANTARI

*L. Mitxelena euskaltzale eta detective-story zaleari
eta Gabriela Lobitegi-koaren animari
apalki barkamendu eskatuz.*

Gaston du Pont du Rand, paristar jaun gazte logikazale bat lehenengo aldiz Euskal Herrian zegoena, adi zitzaion kantuz ari zen euskaldun andregaiari. Mutilaren belarri motz oharkorrek entzun araura analizatzen zituzten doinuaren notak... Aire polit, tolesgabea iruditzen zitzaion, herri hortako jendea eta gauzak oro bezala. Kantuaren hitzetatik, berriz ez zuen ezer ulertzen.

Helena kantatzetik gelditu zen, beraren buruaz miraz, eresi zahar hori aukeratu zuelakotz doinu berriago baten orde. Neskaxa oraindiarra zen... Leihotik kanpora begira zegoen eta haren aurpegi pollitak asperdura zerakusan. Kanpoan euria erasoka. Egun guztirako barruan egotera beharturik ote zen, bere gurasoen etxe zahar ilunean eta Parisetik etorritako senargai horrekin? Isolak ari izanik ere, nahiago zukeen atera bere gazte-lagunekin ibili. Laster, ezkon-

du eta, betiko joanak zitukeen gaztaroko laguntasunak eta jolasaldiak, du Pont du Rand-tar bati zegokion emaztea izatea gatik. Libertatea galdurik... Jasango ote zuen horlango bizitza bat?, galdetzen zion neskak, kezkatu, bere buruari. Ezetz erabaki zuen bere baitan. Baina Gaston ez zen gizon bihotz gogorra eta, dena dela, ez zion ohitura txarrik hartzera utziko: ezkondu ondoren, aurretik bezala, bere gogoia baizik ez zuen egingo, senarra bere nahikerietara makur erazirik. Bai eta gaur bertan, senar hezitze hortarako saiakera gisa, mutila behartuko zuen bere automobil haundi ederrean paseiura eramanez, dantzaetxe edo zinema batera. Bazekien Gastonek ez zuela ateratzeko den gutien gutizirik, eta onenean egun guztia etxean igaroko zuela, irakurtzen edo radioari entzuten. Busti beldur zen alegia. Amor emango zuen, ordea, lausenguz edo laztanez enganatuz gero...

...Eta segurantz horrek alaiturik, hasi zen neska berriz ahapeka kantatzen. Amerikako aire bizkor bat aldi hontan.

Gastonek geldierazi zuen: «Ez -eskatu zion- kanta ezazu arestiko euskal kanta hura», eta neskak, soa harengana inguratzen zuelakotz ezjakina eginik,

lehengo notak txistukatu zizkion. Hutsik egin gabe, gero, logikazale bezainbat musikazalea baitzen.

«Oi -pentsatu zuen Helenak-, ezer ez zait kostatzen eta atsegin apur hori egin diezaioket». Eta ahal zuen bezain sentimenduzki kantatu zion:

Goizian goizik jeiki nündüzün,

espusa nintzan goizian;

Bai eta zelaz ere beztitü

ekhia jelkhi zenian;

Etxekandere zabal nündüzun

egüerdi erdian,

Bai eta ere alargünisa gazte

ekia sarthü zenian.

- Musde Irigarai, ene jauna,

alixa izadazüt baria,

Ala dolütü othe zaizü

eneki espusatzia?

- Ez, ez etzitadazu dolütü

zureki espusatzia,

Ez eta ere dolütüren

bizi nizano lürrian.

*Nik banizüñ maitetto bat
mündü ororen isilik,
Mündü ororen isilik
eta Jinko jaunari ageririk;
Buket bat igorri ditadazü
lili arraroz eginik,
Lili arraroz eginik
eta erdia phozuatürük;
Zazpi urthez etxeki düzüt
gizona hilik khanberan,
Egünaz lür hotzian eta
gaiaz bi besuen artian,
Zitru-urez ükhüzten nizün
astian egun batian,
Astian egün batian eta
ostirale goizian.*

Gastonek eskerrak eman zizkion pozturik:

- «*Très bien*»; baina orain, mesedez, hitzok hizkuntza ulergarri batera itzul zaizkidazu.

Pariseko erdarara itzuli zituen behingoan Helenak.

- Ilun samar -esan zion Gastonek arretaz entzun ondoren-; gertaria hitz-lauz jaulki zaidazu arren.

Helenak eman Zion orduan Gabriela Lohitegikoaren zori kupidagarriaren berri: nola ezkontzekoa zen Irigaraiko jauna, bere bihotzeko kuttunarekin, eta nola hil zen hau eztei-egunean bertan, isilean zeukan amorrante batek pozoiturik...

Kondata eta Helena isildu zen eta beste zerbaite-tan pentsatzen hasi zen, baina «hüm -egin zuen Gastonek-, hum, hum...». Haren adimen bizkor, eskolatzetaz ornitua, ez zen lotan egon andregai mintzo zen artean. Logika gutti aurkitzen zion mutil logikazaleak Euskaldunen ipuin horri, eta mingarri zitzaion. Begiak itxi zituen. Gogamenetan murgildurik egon zen oraindik apur bat, eta bat-batean:

- Gauza horrela gertatu ahal da benetan? -galdetu zion Helenari.

- Zer diozu? -esan zuen miraz neskak, bere geroarekiko ametsetatik iratzarririk.

- Diot, ageri edo paper zaharrik ba ote den ipuin hori egiaztatzen duenik. Kantuak aipu duen «maite-toa» hauzitara jauki ahal zuten eta hauzitegiak erru-duntzat jo ahal zuen? Hitz batez, egia ote den Irigaraiko jauna tankera hortan hil zela?

- Nik ez dakit; hala diote kantuak eta hemengo jendeek behintzat.

- Jendeek diotena! -oihu egin zuen Gastonek erdeinu bizitan-. Ez ote zara ezertaz ohartu ipuin bitxi hortan: Gabrielak zeinen argiki mintzo iduri duen lehenengo hiru ahapaldietan eta zeinen lauso eta adigaitza den, aitzitik, azkenengoa?

- Ai -egin zuen Helenak ezaxolki-, kantu baten hitzei kasu egin behar balitzaie...

- Baina bai kasu egin behar zaiela! -esan Zion Gastonek sumineluxerik bezala: gogamen sakonetako mutila zen, eta zenbait aldiz andregai txoriburu bat baizik ez zela uste izatera gertu zen-. Orori kasu egin behar zaio, eta bereziki kantu honen letrari.

- Zertarako ote?

- Egia bilatzeko! -ihardetsi zuen ospatsuki mutilak.

- Egia zer da? -galdetu zion irrifar batez Helenak, bere haurtzaroan Ebanjelioa irakurri zuen eta-. Zuk ba ahal elakizu?

- Kasu hontan baietz uste dut; eta orain agertuko dizut, adimen argiari jarraikiz idoro eta kausitu dudan bezala.

- Esan bada, Sherlock!

- Beste giltzen gabeen, protagonisten psikologia, lau ahapaldiok salatzen digutenaz, kontuan hartu dut,

Irigaraiko jauna eta Gabrielaren artean egiaz zer gertatu den jakitekotz. Zer erakusten digu bada Gabrielak bere gogoaz eta barruaz ezkontzaren berri damai-gularik? Ez zela bera -eta zure esanei nagok- herriko jende ximpleak sinetsi duen bezalakoa, hots, zorigaitzak jotako alargun urrikalgarri bat; aitzitik, emakume bihotz hotzeko eta buru-arin bat dela, gainera haundi nahi eta ontasun zalea zena eta, azkenekotz, nahiko lizun eta lotsagabea.

Helena protesta bat ateratzera zoan salakuntza izugarri horrek harriturik, baina senargaiak ez zion astirik utzi, eta berehala jarraiki zen:

- Bihotz, hotzeko eta amorio gabekoa zela errez da ikustea: lehenengo ahapaldian, eztei eguneko goizean bakarrik zegoela gogoan zer zerabilen jakinerazten baitigu, ez du batera Irigaraikoari liokeen maitasunik aipatzen... ez dakar ez eta senargaiaren aipurik ere... Jantziko duen soinekoaz baizik ez dela arduratu darakusagu; neska buruarin eta azalekoa zelako seinale bat. Gero, ezkontzak etxeko andre aberats egingo duela jakinerazten digu: Irigaraiko jauna ez zuela benetan maite ikasi dugunaz geroz, hortarik ageri da senargaiaren etxalde eta dirutzak liluraturik baizik ez zuela harekin ezkontzea onartu. Hurrengo bertsoan,

berriz, alargun gazte geratu dela oroiterazten du, entzuleen barruan grina likitsak piztea gatik noski, ezen badakigu alargun gazteek, beren jantzi beltz eta gezurrezko negar malkoz gizonen lizunkeriarik kilika egiten diotela, hauen sentsualitatea sadismu dasta batez areagotuz... eta maltzurki esaten du bestalde eguzki sartean dela alargun gertatu, hau da, amoranteekin gauaz ibiltzeko libre; ezin garburoago aditzera eman zezakeen alargun lizunak amorante gaiak bildu nahian zebilela; hainbat gehiago, non arestian gogoraerazi dien andre aberatsa dela bere ezkontzer eskerak... Gabriela, sentimendu itsusi horiek oro ozarki, gehiago dena, kantatuz agertzen dituelakotz, lotsa gabe bat bezala agertzen dela esan dut.

Baina are txarragoa da oraindik, zeren hipokrita bat baita: urrengo bi ahapaldietan bere senarrarekin izan duen alkarrizketa jaulkitzen digularik, Irigarai jaunarekin maiteminduarena egiten zuenik ez digu ezkututzen azaluts ez besteak! Eta Irigarai sineskorak, Gabrielaren zimarkuneriak atzipeturik, ustez eta emakume antzegilea egiazko nahitasuna diola, bere segetuz salatzen dio, bere zorigaitzerako: beste neska bat zuela maite alegia. Pentsa nola hartuko zuen Gabrielak aitormen hori! Orain artean senar-

gaia edozein baizik ez bazitzaion, orain gorratatu egi-
ten du, noski, ezen berak ez badu maite ere, ez du
jasango berea zelako gizona beste batena izatea. Egin
zaion irain hori apentzeko, mendekatzeko, zernahi
egitera prest geratzen dela aisa sinetsiko dut.

Hemen Gastonek bere hitzaldia eten egin zuen,
Helenak zer-edozer galdegin haiduru izan bailitza.
Baina neskak isilik zirauen, eta mutil gazte logikazalea
aurrera mintzatu zen honela:

- Kantuak ez desaigu nor zen Irigarairen amoran-
tea; hargatik segur izan zaitez arrazoinamendu hori
ere neuk idoro dezakedala: Sirenek zer kantu kanta-
tzen zuten, edo Akilesek zer izen hartu zuen emaku-
me artean ezkutatu zenean? Galdeok korapilotsuak
izan arren, ez dira aiheruka inolaz ere erantzun ezi-
nak. Dena dela, neska haren izenak eta deiturak ez
dute gertaerarekin zer ikusi haundirik, eta nor zen ez
jakinik ere, igar dezakegu neska zintzoa eta lotsa onez
betea zela, bere amorioa jendea gatik isilik gorde zue-
lakotz; fededuna zen Jainko jaunari fidatu ziolakotz
ordea; eta aiherkunde gabekoa zela ere ikusten dugu,
maite zuenaren zoriona opa zuelakotz ororen gainetik
-beste emakume batekin izan behar bazuen ere-, Iri-
garairi eztei egunean igorri zion lore sortak darakuski-

gunaz. Zergatik lore sorta bat? Ene ustez, zintzoa bezain txiroa zelakotz, bestela preziotsuago litzakeen dohain bat egingo zion: urrezko eraztun bat edo bitxi bat edo abar. Kontuan har ezazu, hala ere, lore bakanak, hau da, garestiak aukeratu zituela neska bihotz on, berekoikeria gabeko hark... gaixoak, beharbada, zeuzkan txanpon guztiak hortan eralgiko zituen...

- Baina lore-sorta pozoiturik zegoen! -Helenak oihu egin zuen.

- Hala diosku bederen Gabrielak... -ihardetsi zuen Gastonek lasaiki- Loreak pozoitu? Uste dut hori ez dela ezin egin ditekeen gauza bat. Baina oso gauza zaila da, eta lortzekotz, kimikaren ezagutza nahiko sakona behar da, garai hartako euskaldun emakumeek dudarik gabe ez zeukatena, ez eta orainaldikoek ere noski. Ez, Irigaraiko jauna, pozoia bidez hil izan bada, segur izan zaitez pozoia ez zela loreotan jarria. Gabriela maltzurregi zen, ordea, gezur osorik esteko, eta uste izateko da beraz, haren kantuari bagagozkio, izan ere zerbait bazela «maitettoak» Irigarairi bidalita-ko lore haietan. Zer ote? Egiantzaren araura, eskutitz bat, edo ile-kizkur bat, edo bestelako oroigarri samur bat; Irigaraiko jauna, delako oroigarri samur bat; Irigaraiko jauna, delako oroigarria ustegabeen idorota, goi-

bel gelditzen da, gogoratzen zaiolakotz amorio garbi, zabal hori alde batera utzi duela, bere eta Gabrielaren familiaren interesei jarraikiz arrazoizko ezkontza bat egiteko. Eta Gabriela gaiztoak, hori dakusalarik, haren bihotz ankerrak jasan ez dezakeen alkar maitatze zintzo horrek gaitziturik, gezur eskerge hau asmatu eta senargaiari esanerazten dio: lore-sorta Irigarairen amoranteak pozoitu zuela, zaldun kupidagarri aren heriotza honen gain ematekotz.

- Baina ez badu honek Irigarai hil, nork arren? -galdetu zuen Helenak, beraren gatik iker-lan hortaz arduratzen hasirik-. Ala berak bere burua hil ote zuen?

- Izan ditekeena da hori, apriori -erantzun zuen Gastonek-; dakigun bezala, gizon bihotz maltsoa eta gogo ahula zen, familiaren gatik Gabrielarekin ezkontzera gertu baitzen beste neska bat maite izan arren; zio horrengatik, apur batean uste izan dut bere buruaz beste *egin zukeala, etsipenez*. Baina ustekizun horrek ez du egiantzarik: Irigarai kristau onegia zen horlako bekatu larri bat egiteko... ikusi dugu, haren amoranteak hala nahirik, beren maitetasunaren segeretua Jainko Onari nola fidatu zion gizon jainkotiarrek. Gabrielaren aiurriak, ordea, beraren aitorkunde lotsa-

gabekoetatik dazaugunaz -lizun, hipokrita, haundios, buru arin eta bihotz gogorreko zen Gabrielaren aiurriak- egia aski garbiki salatzen eta aldarrikatzen digu: berak du Irigaraiko jauna hil!

- Ene! -egin zuen Helenak txunditurik-, ergelkeria bat da hor diozuna... Ez ahal du berak esaten zazpi urtez senar hilaren gorputza bera gelan gorde duela, gau oroz bere besoetan laztantzekotz? Ez ahal da hori benetan maite zuelako ageri bat?

- Ergelkeria bat dena -esan zion Gastonek erdei-nari- hortako ipuin batean sinestea da. Zazpi urtez gorputz hilotz bat norberaren gelan edukitzea!... Uste ahal duzu Legeak -Elizarenak nahiz Erregerenak- utzi-ko ziola hori egiten? Ez noski, dudarik gabe. Segur izan zaitezke Irigaraiko jauna lurperatua izan zela, ohi-tura eta ohikundeari jarraikiz, eta ez nago zalantzan Gabrielak negar ugari ixuri zuela ehortzeta egunean, itxurontzi gogaikarriak! Baina hemen ere, finegi zen gezur borobilik esaten ibiltzeko: gezur borobilik esaten ibiltzeko: gezur edo egia-erdiak zituen esaten, jende sineskorren lepotik iseka hobeto egiteko. Berak aitortzen duenaz geroz, norbait ezkutatu zuen baiki bere gelan, ez ordea Irigaraiko jaun hila. Nor ote zen? Bere ohaide edo amorantea, batere ezbairik gabe.

Ezen Irigaraiak amorio garbi bat isilean baldin bazeukan, hark ohaide bat zeukan ezin bestez, emakume lizuna eta atsegalea zelakotz, arestian ondorekatu dugun arauera. Lotsarik gabe aitortzen du gau guztiak gizon bat besoetan atxikiz igarotzen zituela: zertarako bada, maitakeriazko jolasetan jarduteko izan ez balitz?

Ohar zaitetz bestalde amorantea *bere* besoetan edukitzen zuela eta ez zetzala bera, haren eme-izae-rari zegokion bezala, gizonaren besoetan: horrek are argikiago erakusten digu emakurne likits baino likitsa-goia zela; esan nahi baitu beraren atsegina zuela oroz lehen bilatzen, gauezko jolasetan bera zuzendari izaki... Baina lotsagaldu bat izan arren, beldurti eta koldarra zen, eta ez zen ausartu bere lizunkeria bes-teen aurrera agertzera; baldin hala egin izan balu, jen-dea jelostuko zen, noski, alargun andre gazteaz, inkesta bat izango zen eta bere gaizki eginari esker irabazitako ontasuna galduko zukeen, bai eta bere. bizia arriskutan ipiniko. Horrengatik, amorantea bere etxeko leku ezkutu batean gordetzen zuen (ezkutale-ku faltarik ez baitzen garai hartako jauregi zaharretan), bere logelatik hurbil alabaina, beti ere haren mendeko eta zerbitzurako egon zedintzat.

Beste isilune baten ondotik, Gaston berriz hasi zen:

- Hots, Gabrielak senarra hil du eztei -eguneanbertan, pozoituz noski, pozoia aipua baitakar ziniko hark bere kantan. Ez dio lore-sortan eman, bide klasi-koago batez baizik: edari edo janaritan, edo zizta batez. Bi zio nausiren gatik egin du gizeraite hori, nik uste: lehenik, senarraren gandik askatuz bere am-
rantearekin bizi ahal izateko, Irigaraitarren ontasunak berentzat gorderik, ordea; gero, Irigaraiz apentzekotz, honek bere amorioaz egin zion aitormen ergelak sumindu zuelakotz izugarritan, ez baitzen nos barka-bera, eta senargaiak beste bat maite izatea laido gai-tza zitzaion baiki. Dena dela, bigarren zio hori bere hobenaren, bere erruaren justifikagarritzat hartuko zuen hipokrita hark.

- Zergatik arren -jakin nahi izan zuen Helenak-, gauak gizon bizi baten ondoan igarotzen baldin bazi-tuen eta ez gorpu-zurrun batekin, zergatik dio limoi-urez ikuzten zuela gauero?

Gaston gorritu egin zen, gogamen argiko bezain bihotz aratzekoa baitzen mutil jaioa. Hala ere andre-gaiari ihardetsi zion:

- Bai, emakurte haren likiskeria ezaguturik, bel-
dur naiz badela hortan zeihar esan zikinen bat... hitz
erdizka uler dezakezu... eta gero zergatik dio ostirale
goizean dela hori gertatzen? Ostiralea, paganoentzat
sentsualitatearen jainkosari eskainitako eguna, baina
kristaudentzat egun santua delako: emakume doilor
hura ez zen egiaz kristau, ordea, eta gure fede san-
tuaz parre egiteko abagune hori ez du galtzera utzi
nahi...

Helena isilik geratzen zelarik, gogoetan galdurik
-gogoeta gozoa noski, irriño bat eragiten baitzion-,
Gastonek bere hitzaldi irakasgarria liriko antzean
amaitu zuen:

- Ai zer nolako arima beltza eduki behar zuen
Gabriela Lohitegi hark... Hargatik, berberak ez zeka-
rren ausaz bere gaiztakeriaren erru osoa: nik uste
odolean zeramala gaizkiaren kutsua haren deiturak
berak salatzen digunez. Alabaina honera etorri baino
lehen «*Lexique français-basque*» bat erosi nuen Baio-
nan, eta hari eskerrak euskaltzale egin naiz; badakit
orain Lohitegiarrak, leinu urrikgarri hartakoak beren
jauregian gauza zikin lohitsuak bururatzen zituztela-
kotz izan zirela hala izendatuak... Zer nahi den -buka-
tu zuen Gastonek ateraldi bertutetsu horren ondoan-,

horra ezkutapen bat argitaraturik, eta ene ikerlanak arrazoiaren bide segurrari jarraikiz beti Egiara hel ditekeela erakutsi behar dizu, izanik ere aztarnak edo oinatzak nahastekotz maltzurrek egindako ahaleginak oro. Zuk zer pentsatzen duzu hortaz, maitea?

- *Se non e vero...* -ihardetsi zion Helenak eztiki eta italiano, ezen senargaiak susma zezakeen baino askoz ikasiago eta finago zen neska polita. Dena dela, zure asmalan horrek mutil burmuin bizkorra zarela erakusten digu, baina aurretik ere bagenekien. Halaz ere esker bereziak zor dizkizut ideia on bat eman baititazu, besterik ez balitz ere...

- Zer ideia? -galdegin zion senargaiak.

- Gero jakingo duzu -esan zion misterioski. Eta nola azkenean bere ideien axolarik baizik ez baitzuen Gastonek, ez zen tematu, eta Helena berriz kantutan hasi zen. Izatez, Helenaren ideia ez zen txarra, neska-
ren ikusgunetik behintzat. Baina uste izateko da senargaiak ez zuela onartuko, zer zen jakiteko dembora eta astirik izan balu. Ez denborarik, ez astirik ez zuen izan, ordea. Gogoan erabili zuen Helenak: «Gaston hau azkenaz beste ez zait gehiegi gustatzen. Burgoi, arrazoinzale, aspergarri delarik, zer bizitza itsa eramango dut harekin ezkondu eta! Alabaina, ezkon-

tza horri ezin itzur nakioko: aberastasuna eta gizarte-ko leku gailen bat ekarriko dizkit eta, gainera, guraso-ek nahi dute egin dadin; alaba on izaki, ez nieke inon-dik ere atsekaberik eman nahi. Baina, Gastonen izpiritu ikertzaleari eskerrak, orain badakit nola joka»

Eta gogoia lasai, senargaiari beti atsegiteko prest geratu zen eztei-eguna egokitu artean.

Ezteiok ezin hobekiago igaro ziren, han zeuden guztien boz eta alegrantziaren erdian. Gastonek, mutil zintzo-zintzo izan arren, ttantta bat neurritik kanpo edan zuela aitortu behar da; baina bazuen ausaz moz-kortzeko arrazoinik, Helena zen bezalako neska zora-garri, edermenez bete batekin ezkonduaz....

Helenak, aldiz, burua hotz eduki zuen; behialako Gabriela Lohitegikoak -Gastonek esanak egia baldin baziren- bere ezteietan zeukan bezain hotza. Baina Gabriela garai erromantiko bateko alaba zen pozoin eta mazkaro eta ezkuturien garaikoa; Helena berriz neska oraindiarra zen guztiz, gauzak lilura gabe eta bakun nahi dituen hogeigarren mende hontakoa. Horrengatik askoz sinplekiago gertatu zen. Azkenengo ezteiliarrek, senar-emazte berriak bakarrik utzirik, etxerako bidea hartu zutenean, Gaston, oinak piska bat kordoka zerabilzkiela, ezkon-gelara zeraman

eskailera luzean goiti abiatu zen. Bihotz aratzeko mutil izan arren, ez dut isilduko zentzuak irazekiak zituenik. Baina gau hartan zilegi zitzaion, ez da? Ezkon-gelan sartu erpai zegoen. Bizkitartean Helenak aurea hartu zion.

Gora igaro zen txairo eta arin. Ez zen gelara berehala sartu, ordea, baina ezkontideari eskailera-buruan itxo egin zion.

Mirabeak jauregiko beste alderdian bizi ziren, eta horrengatik, Helenaz beste, inork ez zuen ikusi senar gaztea, maila bat huts egin bailukean, eskaileran goiti beheara nola erori zen eta, beheko lehen mailaraino amildurik, hantxe lepo-hezurra hautsi eta puskatu zuen.

Bitartean Helenak orroaz eta marrumakaz ziharduena, eta mirabeak lasterka etorririk agertu zirenean, artista antzean alditxartu zen neskame baten besoe-tara.

Ehortzeta bat txit ederra egin zioten du Pont du Rand zorikabeari eta, behar zen bezala, negar saminik asko zuen andre alargun gazteak. Ahaide, adiskide eta ezagun guztiek bihotz-bihotzetik erruki zioten gure Helenari.

Hain errukarri ote zen gero? Du Pont du Rand zenaren gandik, kondesa titulu eta jendeen estimuaz gainera, etxe jauregi pollit bat eta goitiko ondasunik franko jauretsi zuen. Bestalde, Lohitegiko Gabriela baino zoriondunago, maite zuen gizona, hil edo biarik, bere gelako lurpean zazpi tirtez eduki beharrik ez zuen izan: urtebete gabe ihes egin zuen herbestera bere herriko amorante gazte batekin. Dohatsu bizi izan ziren, haurrik ez baitzuten izan.

GAUAZ PARKE BATEAN

Andere xaharra jarri zen parkeko aulki bazter batean, moda zaharreko eskuko zakua amultsuki gerriari kontra herstutuz. Gautzen ari zen jadaneko, baina astia zuen etxera itzultzekotz; hurrean bizi zen, eta udaberriko airea hain goxo eta epela zenuten... Haren aldamenean, ordea, paseiantak beren egoitzetara lehiatzen ziren: langileak, parkeko bidea laburkausaz hartzen zutenak; eskola-haur eta ikasleak, eskola-liburu eta tresnak besapean; amorosen bikoak, emeki eta besotik heldurik zebiltzanak, andere xaharrak ametsetan bezala so egiten zielarik. Bakarra ote zegoen orain parkean? Eta zenbat denborarako? Baina ez: gizon gazte bat aitzina zetorren, zaloin. Haren aurretik iragaitean emetu zuen urratsa eta begiratu zion, zalantzan iduri; gero jin zen haren ondoan jartzera.

Andereari ez zitzaion atsegin izan, haren ondoan jarri baitzen, baina aulkia ororena zen, ez da? Mutilak zigarreta bat piztu nahi izan zuen eta anderea ohartu zen eskuak ikaratzen zitzaizkiola; bi mitxa erabili behar izan zituen heltzekotz. Zainbera zelako pentsa-

menduak irriño bat atera zion emaztekiari, eta mutilak aitzakitza hartu zuen irri soil hori harekin elekan has-tekotz.

- Gaualdi ederra, ez da?

- Bai, gaualdi ederra, baina beste gaualdi batzu ezagutu izan ditut, oraino ederragoak -ihardetsi zuen, gogoetaturik.

Gizon gazteak bitxiki so egin zion eta andereak bazekien bere baitan zerabilela: Atso ergel hiztun bat, dudarik gabe»... Eta andere xaharrak emaiten zion kexaduraren mendekioz edo, hobeki, gaiztakeria hutsez, galdegin zion apur baten buruan:

- Ez zara beldur, Anderea, zuhaur tenora hontan, eta leku hontan?

- Zergatik beldur izan behar nintzateke?

- Zergatik? Baina hemen gertatu diren gizerailketak gatik, naski.

Ene! Zertarako mutilak oroiterazi nahi zizkion, gauetarik gau hontan hain zuzen, aitzineko urteetan parkean gertatuak: eskolako neska bat, gero berrogeiren bat urteetako ama familiako bat, eta azken aldian neskabila bat, hirurak hilik atzemanik, zintzurra trinkaturik, eta erailea oraino ihes?

- Ez, ez naiz beldur -erran zuen deplauki.

Gizon gazte hori gero eta desplazentago zitzaion. Eta bet-betan gogoak eman zion deliberatuki etorri zela haren ondoan jartzera, haren diruaren ebaste-kotz. Herstu zuen eskuko zakua bere gerriari kontra-go. Baina gizon gazteak, haren mogimendua ez ikusirik edo ezikusia eginik, aitzina erran zuen:

- Gauza lazgarria: hiru emazte hementxe itoak izan, bakoitza udaberri batean, eta aldi-bakoitzean poliziak huts egin! Nork daki gizerailea ez dagonetz parkeko itzalean gorderik, gau hontan bertan?

Andereak bazekien orai mutilak izi erazi nahi zuela, haren zakuz jabetzekotz... Haatik ez zuen utzi-ko hartzera... Ozenki ihardetsi zion:

- Badute aspaldi erailketa horiek. Egilea urrun dakete engoiti. Ez naiz ez beldur.

- Ez dute hain aspaldi; azkena, gogoratzen zera neskabila gazte harena?... Joan den udaberrian izan zen eta.

Oroitzen zen, bai, anderea, baina ez zuen beldur izan beharrik, ez mutil horren, ez beste ihoren. Eta jakin-gose ergel batek bultzaturik galdegin zion:

- Zure ustez, nor zen egilea?

- Oh! Dudarik gabe sadiko bat -erantzun zuen ezaxol.

- Bai, arrazoin duzu, hiru emazte gazte itorik, dudarik gabe agure sadiko batek hilak.

- E! ez bain zaloin, hain laster ibil zure arrazoina mendutan... -egin zuen mutilak, irriz-. Nik dakidanez, erailea gazte izan zitekeen, ez bortxaz agure bat.

- Ez, ez -ihardetsi zion, emeki baina sarkorki, hartaz segurtatu nahi izan balu bezala, zeren gaua baitzen orai eta biok bakarrik zeuden parkean-, agure batek baizik ez zitzakeen hiru emazte gazte eta eder horiek hil!

- Bai eta gizon gazte batek ere. Gogoan atxik ezazu ez diola, idurien arabera, hilean adinari hainbat axolarik, emazteki diren ber; hirurotarik bat haur bat baizik ez zen; beste bat bi adinen arteko andre bat... uste izateko da emazte-kente guztia duela higuin... Zergatik? Haien amodioa ezin irabaz dezakelakotz ote? Beharbada eder ez delakotz, edo alde batetik beste gizonak ez bezalako delakotz, edo enbalditua. Gertatzen ohi dena, badakizu. Ene kasua har ezazu: maingua naiz (anderea ez zen ohartu maingua zenik, parkean gaindi zetorrelarik); gauza guti da naski, halaz ere behaztopo bat emazteki bati korte egin nahi baniro -erran zuen irri idor batekin, eta gero-. Hots,

gizeraile sadiko bihurtzekotz zio bat aski indartsua gogoak edo zainak eriak lituzken batendako!

«Egia da -pentsatzen zuen andereak-; gutariko bakoitzak mila eta milaka zio badauzka gaiztagin bihurtzeko». Eta amets egin zuen luzaz leku-komun hortaz. Osoki ahazturik zituen mutil gazteak oixtion sorrerazi ziozkan dudamudak oro... eta hunek, betbetan hari hurbildu eta, eskuko zakua indarka kendu nahi izan zionean, izialdurak baino areago, ustegaberi jazarria izateak atera erazi zion orroa bat. Ez zuen ez beldurrik, baina ez zion zakua hartzera utzi behar eta tink-tinka atxikitzen zuen.

- Alo, eman zaidan berehala! -manatu zion bortiz mutil gazteak, eta zintzurra bihurtu nahi izan zion. Moldegaizki, ordea, gertuzko gaiztagin batek bezala... pentsatu zuen, erdeinuz, andereak. Nork zekien hartatik etsipenez zeran egitera prest zatekeen? Nigarroiki otoiztu zuen beraz-: Utz nazazu, arren, ene dirua emanean dautzut, bai!

- Berehala baina, atsoa, bestela... -ihardetsi zuen gizonak, baina lepoa laxatu zion.

Andere xaharrak zakua ireki zuen eta mutilak engoiti eskua hedatzen zuen poltsaren hartzekotz. Baina haren begiak borobildu ziren harridura gatik

ahoa zabaldu zuen oihu baten egoztekotz, bertan itoa izan zena, ezen andereak poltsaren ordeztan bilur bat jalgiz zuen zakutik eta aski trebeki gizon gaztearen lepoaren ingurura aurdiki... eta halako emazteki adintsu batenganik ihork igurik ez zezakeen indarrarekin tinkatu zuen berehala, ziotsalarik:

- Ez hintzen hi gaur bilatzen nian ihizia, baina hihaur jin haiz ene sareetara, ez dea hala?

Ezin jakin zuen, ordea, besteak astirik ukan zue-netz hitz horien entzutekotz, bere luzean eroria baizetzan aulkiaren oinetan, begitartea jadaneko urdindurik eta mihia ahotik erdi aterarik. Andereak artoski deslotu zuen bilurra eta eskuko zakuan liarzara goititu. Gero segurtatu zen gizon gaztea hil zela beharria haren bularrari kontra emanaz. Hila zen, bai, eta harekin-batean itzaliak betikotz haren osasuna eta haren gaztetasun ederra. Ez zen gero egia maingua zenik, eta aurpegia eder zeukan, bizi zelarik! Alo, berriz ere ito ahal izan zuen andereak bere bizitze bakar, hilduratuarentzat irain bat ezin jasanezkoa zen «beste»en atsegin eta bizi nahia...

Berriz ere, datorren primaderarainoko, bederen. Bere etxera itzuli zen, eta ihork ez zuen bidean haute-man.

MISZELANEA

HUMORE BELTZAREN MODELAK LABUR ETA ILUN

Andere batek ama berri bati: Zein itsusi den zure haurra!

Amak: Ez du, axolik, medikuak erran dit ez zela biziko.

* * *

Kattina nigar zotinka ari da.

- Zer dun, maitea? -galdegiten dio osabak.
- Amak gatu-humeak oro hil ditu.
- O gaiztoa! Eta hik begiratu nahi hituen?
- Ez, nihauk hil nahi nituen.

* * *

Automobilista bat sartzen da herri txipi bateko jendarmerian, eta griñaturik iduri, geldegiten du:

- Herri huntan zakurtzar beltzik badea?
- Ez.
- Eta behi beltzik?

- Ez.
- Eta zaldi beltzik?
- Ez.
- Ozpina! Orduan apeza dut lehertu...

* * *

Masokistak: -Min egidak!

Sadikuak: -Ez!

Masokistak: -Eskerrik hanitz!

* * *

Elurra ari da eta Joanes txipia irri-karkailez dago, leihotik so.

- Elurra erorten ari delakotz irri egiten duk? -amak galdegiten dio.
- Ez elurra, jendeak erorten direlakotz...

* * *

Bizar eginguan.

- Tomate saltsarik jan duzua egun?
- Ez. Zergatik?

- A! orduan, zintzurta moztu dizut.

* * *

- Lore pollit hoik nori eramaten dizkiok, Jean Pierre?

- Amattori.

- Kontent izanen duk, bai...

- Ez dut uste: haren ehortzetarako dira.

* * *

Ostatuan.

- Mutil! Euli bat igerika ari da ene whiskeyan.

- Ez da igerika ari, jauna, hila da.

* * *

Neskatxa txipi txipi bat harmonika joiten ari da. Jaun batek, apur bat beha egon ondoan, erraiten dio:

- Zer soinu ederra egiten dunan! Baina nik beste harmonika bat, hobeagoa, emanen dinat...

Eta bizar-labana bat emaiten dio.

- O, milesker, jauna -dio neskatzak irri pollit batekin.

Eta handik landa, haren irria gero eta zabalago da, gero eta zabalago, gero eta zabalago...

* * *

Anai-arrebak gataskan ari dira. Mutikoak, azkarra-go baita, begi bat ateratzen dio arreatxoari; gero beharri bat; gero bigarren begia; bigarren beharriaren ateratzera doa, baina orduan amak:

- Orai aski duk! -eta zafla bat emaiten dio.

* * *

Neskatxa txipi bat burhezur txiki batekin jostatzen ari da. Amak galdetzen dio:

- Non hartu dun hori?

Neska hezurzalea bada ez da gezur zalea, eta berehala aitortzen du:

- Anaitxoaren buruan, amatxo!

* * *

XVII-garren mendean bazen Frantzian borrero bat oso trebea. Garai hartan, Richelieu kardenal latzaren lege bat hautsi zuelakotz, hil-epaia eman zioten Montmorency Bouteville konde gazteari, eta delako borroroak zion lepoa moztu. Bai, eta hain trebeki egin zuen ere, non burua ez baitzen erori, baina lepo gainean gelditu. Gehiago dena, zalduna ez zen ohartu ere lepoa moztu zitzaionik... Ukaldiaren begira zegoen oraindik, eta azkenekotz, asperturik, esaten dio buru mozteari:

- Borreroa, egik hire lana!

Eta besteak begirunez:

- Egia dut, jauna; astin zaitez piska bat eta eroriko da.

* * *

Gizajale batek besteari.

- Nola senti zien aita-amak jan ondoren?

- Humezurtz...

* * *

Eguzki sartaldeko huri batean: plazaren erdi-erdian kondenatu bat hiltzen ari da, enpalaturik. Jen-dea begira dago. So egile urrikaldun batek esaten dio dohakabeari:

- Min asko ematen dizu?

- O, bai! -erantzuten du besteak-. Batez ere farre egiten dudanean...

* * *

Paristar bat, oporrak Mediterraneuko itsas bazterrean igarotzen dituelarik, badoa, behin, horra bizitzera etorri den adiskide bat ikustera. Adiskidearen emazteak bazterrak eta etxea erakusten dizkio. Bero haundia da, ordea, eta eltxo ugari badago.

- Bai, ezin hobekiago bizi zieteke hemen -diotsa Paristarrak-, eltxo, horiek ez balira...

- Egia da aspergarri direla -erantzuten dio emakumeak-; zorionez aitona gurekin dugu.

- Eta zer egiten die hark eltxoei?

- Egiten, ezer ez. Baina eguraldia bero denean oso, aitona etxe aurrean jartzen dugu, eta eltxo guziak haren gana datoz.

- Agure gizaxoa! Hazka eta hazka egongo da.

- Ez, ezin diteke; elbarritua da ta.

* * *

Langile batek begi bat galdu du ezbehar batean. Kristalezko begi bat erosten du beraz, eta, garbizalea delakotz, gauero oherakoan begi zulotik kendu ta arretaz ikuzten du. Behin batean, huts egiten du: kristalezkoaren ordeztan begi ona kentzen du.

- Alajaiña -oihu egiten du sumindurik-; berriz ere argia moztu didate!

* * *

Mutil koxkor herbail bat: dohakabeak ez dauka ez ankarik ez besorik. Igande arratsaldea bere lagun txikiarekin igaro du parkean. Arratsean, lagunak etxera joan ondoren, amak galdetzen dio:

- Zer egin duzue parkean?
- O!, ederki jolastu gara: futboleak jokatu dugu.
- Baiña heuk zer egin duk gizaxo, horrek?
- Nik baloia egin dut!

* * *

Cabaret-artista bat da. Cabareteko zuzendariak galdetzen dio eia zerbait asmatu duenetz arratseko, programarako.

- Bai -erantzuten dio-; ipuin farreeragingarri bat asmatu dut... farrez hiltzekoa gero.

Ageri da zuzendariak dudak badituela, ordea, eta artistak ipuiña, kontaktzen dio, bere aburua eman diezaion. Baina besteak hainbat farre egiten du non eta, azkenean, hiltzen baita. Artista bahitzen dute, zuzendaria berak hil duelakoan. Gauza gertatu den bezala esaten die poliziako gizonei, baina hauek sines-gogor dirudite. Orduan haieri ere ipuiña kontaktzen die: farrez leher eta zart eginik bertan hiltzen dira poliziako buruzagia eta hamaika hamabi... Artista presondegian sartzen dute. Hantxe, bakar bakarrik, hauziaren zai, biziaz zeharo etsituta, azkenean bere burua hiltzen du. Ipuin farrez hiltzekoa bere buruari kontatuz, alegia.

KOFESIO ONA

Gizon batek bere emaztea hil zuen. Lendabizi oso pozik egon zen, bake ederrean bizi zelakotz orain. Geroroxeago ordea, nik ez datik zergatik -edukazioa zela, ala ohiturak, ala jendeen esamesak-, baina, aski ergelki, hasi zen duda-mudan gaizki egin ote zue-netz... eta azkenekotz izugarritzko damu bat jabetu zen haren kontzientziaz hilketa horren gatik, nora ingura ez zekiela aholku edo barkamen bila.

Gizon hori protestante fededuna zen, baina ez zen ausartzen Jainkoari berari mintzatzera, bain beltz izaki haren bekatua, orain zekusan bezala. Beraz, behin batean gogoan hartu zuen Pastore jaunari bere egin-tza aitortu behar ziola.

Tenpluan sartu zenean, pastoreak alaiki eta giza-bideki agurtu zuen, gizon hura oso gisakoa baitzen, moralitate onekoa, eskola onetan izana, eta Biblia irakurtzen zuena. Pastoreari agurra biurtu ondoren, esan zion:

- Jaun pastorea, ea aholku bat emango didazun Jaungoikoarekin baketzekotz, bekatu, egin dut eta: nere emaztea hil dut...

Baina pastorea oihuka hasi zitzaion:

- Alde hemendik, Jainkoak utzitako dohakabea!

Alde egizu Jaunaren etxetik urrun, izaki gaitzetsia!

Eta hiltzale gizaxoak, gaixoak korrika ihesin egin zuen jauretxetik, ifernuko deabru guztiak ondotik izan balitu bezala.

Pastoreak ez ziola kontsolamendurik eman nahi izan, luzaro gogoetan egon ondoren, hiltzaleak erabaki zuen apez katoliko baten gana kofesatzera joatea, zeren protestante izan arren ez zen fanatikoa, eta uste zuen katolikoak ere manera batez kristau direla.

Eliza batean sartu zen eta kofesategira urbildu. Apez aitorentzuleak galdegin zionean «Zure bekatuak esaizkidatzu, ene haurra», boza ikara, ezpainak dardar, berehala esan zuen:

- Aita, nere emaztea hil dut!

Apezak orduan, eztiki:

- Zenbat aldiz, ene haurra?

Ohar bat: Badakigu IGELA-ri buruz uste zoroak zabaldu direla lurrean eta zeruan: besteen artean, antiklerikal omen direla aldizkari eder eta sakon horren idazle jaun batzu. Beharbada baten batek pentsatuko du goiko ipuin horrek ere antiklerikalismuaren kutsua daukala. Baina ez da hala! Hain zuzen ere,

kontrarioa da: ipuinak argi erakusten du apez katolikoaren nagusitasuna pastorearen aldera, azkenengo, honek ez bezala lehengoak humorearen zentzua gordetzen baitaki bekatu kontuetan ere. Bekatu ariñak direnean behintzat, hala nola baita norberaren emazte zunenezkoa hiltzea.

SADIKOEN ZOKOA

1. Herio gastigua Sinan

Kondenatuen eraiteko (hiltzeko) metodoak, urkatzzea eta lepo egitea dira, bai eta «haiztoekiko tormenta» edo Ling-Chy izenaz ezagutzen den heno lazgarri hura, askotan «mila zauriz hiltzea» eta zenbait aldiz, oraino bitxiago, «Hamar zatitan ebakitzea» erraiten baitzaio. Sinan «emeki eraitea» edo «pikatuz eraitea» deitzen dute, eta beren gurasoak hil dituztenen gastigurako usatzen da. Han izanikako Europarrek kondantzten dutenaz, heriotze hortarako teknika arabera aldatzen da.

Kasu zenbaitetan herioa laister etor daiteke, beste zenbaitetan, aldiz, viktimaren zoriaren arabera edo, segurkiago, borraruak ukan dituen ixilikako aginduen arabera berantzen da. Bada saski bat, zapi edo bestelako oihal peza batez eztalia, eta saski hartan, haizto (labana) batzu daude. Haizto horietarik bakoitza gorputz zati edo lohadar baten izenaz markaturik da. Borreruak eskua saskian ezartzen du eta haizto bat menturara elkitzen. Orduan zein lohadar edo gorputz zati ere haiztoan seinalaturik baita, ebakitzen hasten

da. Erranik izan da, gizon kondenatuena askaziek borrheroa erosten dutela, bihotzean sartzeko den haiztoa ahal bezain laister eriden dezantzat.

Irudi du badela kausa uste izateko goian azaldu dugun teknika horren lekua beste eraite metodo batek hartu duela, gehienetan non ez den beti -hontan ez baitu zoriak, artean sartzerik- pentsa daitekean heriotze kastigu izugarrienetako bat emaiten. Ez da izaten saskirik ez eta haizto markaturik. Tresna zorrotz bakar bat erabiltzen da, eta pikatzea, moztea, xehatzea, ebakitzea aintzina doa emeki, urratsez urrats, alde aurretik erabaki den aribide ikaragarri bati jarraikiz.

Sir Henry Norman-ek erraiten digu metodo hori nola den. Dio, kriminala gurutze arront baten gainean loturik dagoela, eta borrheroak gorputzaren zati marduletarik, hala nola azpiak eta bularrak, haragia «ahurtaraka harturik» ebakitzen duela. Hurrengoan «gorputzaren junturak eta hanturak» bederazka moztu ditu; ondoren sudurra, behariak, aztal-beharriak, eta eskuaren eriak ebakitzen dira. Gero lohadrak zatikatzen dire esku mutur eta aztal-beharrietan, ukondo eta belaunetan, besaburu eta hanketan. Azke-

nekotz biktima bihotzean joiten du eta haren burua ebakitzen.

2. Paldoaren tormenta

Paldoaren tormenta edo paldoan sartzea, gizonen krudelitateak sekula asmatu dituen izugarrienetarik dena, hunela egiten da: kondenatua alderen alde zilatzen dute zurezko ziri batekin, haren punta gibelaldetik, atzekaldetik, sarreraziz. Paldoan sartzekotz, biktima lurlean etzanerazten da ahuzpez, zangoak hala loturik non zabal-zabalik egin daitezen, eskuak bizkarrean estekaturik; eta, borreroak bere lanean poxelu lukean igimendurik ez dezan egin, asto basta bizkar gainean ezartzen zaio, hartan jartzen baita laguntzaletarik bat.

Sarbidea lehenik urintatu ondoan, borreroak paldoa bi eskuetarik hartu eta ahal bezain barna sartzen du; gero mailu ukaldika berrogei edo berrogei ta hamar zentimetroz barnago bultzatzen du. Azkene-kotz paldoa zutitzen du eta lurlean landatzen, eta biktima bertan behera uzten da. Zeri lot ez ukanki, beraren gorputzaren pisuak beti beherago, erorazten du dohakabea, paldoa geroago eta barnago, sarreraziz,

hala non azkenean besapetik edo bularretik edo sabeletik ateratzen baita.

Herioa ez dator laister, ez urbildik ere, kondentua-
tuaren oinaze lazgarrien burutzerara. Erraiten da doha-
kabe batzu hirur egunetaraino horrela bizirik egon
zirela. Hiltzea zaluago ala baratsago, jiten da gorputz
moldearen eta, oroz lehen, paldoari eman izan zaion
zuzenbidearen arauera.

Hori nabari da. Alabainan, krudelitate beldurgarri
maltzur batekin, arta hartzen da paldoaren muturra ez
dadin zorrotzegi izan, baina aitzitik piska bat biribil-
dua; ezen bestela balitz, puntak, bere bidean aurki-
tzen dituen organuak oro zulatuz, herioa laister erakar
lezake; baina ziri-punta biribil izaki, organuen zilatze-
ko ordeztz bulkatzen ditu, lekuz aldarazten, eta ez da
gorputz-ehun harroetan baizik sartzen. Horrela, bizia-
rentzat beharrezko diren organu nausiei puska bat
iraun diro, zainen tinkatzeak sortzen dituen oinaze,
izugarrien gatik.

Bizitzaren irautea anitz dagokio paldoari emani-
ko zuzenbideari ere; ezen nabari da gorputzean xuxen
sarturik izateko ordeztz, zeharkaxe barna baldin badoa,
besapetik edo bularretik ilki beharrean, sabelaldeaz
besterik ez duela iraganen orduan, bular kaiolan ez

baita sartzen; ezin die kalterik egin bizitzekotz baitezpadako, diren organuei, eta biziak bestela balitz baino askoz luzaroago iraun dezake.

Azken kasu horren etsenplu, jakingarrienetarik bat Niskorena izan da. Kandia uhartetik Turkoen ohiltzera entseiatu, garaitua izan zen eta preso hartua, eta errege ordeak paldoan sartzera kondenatu zuen. Hirur egunez bizirik egon zen dohakabea. Bere zorigaitzaz burlatzera jinik errege-orde iragaiten ikusten zuelarik, erran zion ihakaz: «Jauna, hain urrikalmentsua zare-naz gero, arkabuz, tiro bat emaneraz iezadazu, bere-hala burut dadin!». Baina agintari bihotz latzak ez zion esker hori, egin nahi izan, eta dohakabea oraino ordu zenbait bizirik egonen zen beharbada, gizon urrikarri batek, haren otoitzak entzunik, ez balu gauaren denboran zintzurra tinkatuz ito.

EUSKALDUNEN STRIP-TEASEA

Munduko kabaret guztietan erakhusten den strip-teasea gure aburuz egiazko euskal-folklorearen froga bat da. Batzuek diotenez spektakulu haur Parisen sorthu zen... eztakigu haren sortherria hori denz... Gure aburuz erran dugunez eta erakhutsi nahi gendukeienez, strip-teasa guztiz euskalduna da, behar bada euskal tradizionetan, zaharrena eta orain munduan hedatukien ezagutzen dena ere bai.

Badago bertze euskaldungoaren imperio bat, euskal txapelaren imperioa, bainan euskaldunak dakigun bezala, euskal txapela ezta bere iathorritz euskalduna, kanpotarra baizen.

Gure folklorearen ikherzale zaharrenek erakutsi deraukuten bezala euskaldunak paganoak ziren, bertze Europako herri guztiak giristinotu zirenean... (Hortakotz ere, oraiko neophyten garra hoin handia da euskaldunetan, zeren eta euskaldunak atzo ere paganoak baitziren).

Euskaldunen kultu zaharrena, bortxa naturalen adorazionea izaiten zen. Euskal kultu zaharreneen biltzar nabusiak, akhelarreak ziren, orain zelebrazten

diren meza nabusiak bezala. Euskaldunak «sabbatho» arrestietan mendietako templetarat ioaiten ziren eta gauazko mezak oihan sagratuetan egiten zituzten.

Meza beltz haukietan, zeremonia nabusia egiazko strip-tease bat zen. Bainan geroz euskaldunak giristinu notu ziren, eta euskaldunen ohidura onak... folklorismu pharregarria bilhakatu ziren. Egun egunotan Laburdiko emparantzetan ikhus ditzakegun representazione nakhaizgarriak, beren ithurburuan euskal kulturaren serbitzu ederra eta sublimeak ziren...

Euskaldunek, fede berriaz bere biziaren ohidura onak galdu zituzten eta ohidura berriak onhartu. Fede berrian, kultu zaharraren praktikak gaitzetsiak ziren... eta euskaldunak bere iathorrizko ohidura onak mesprezatu zituten; beren buruen kontrako plazer haukietaz beren sentimendu nazionaletan, masokhistak bilhakatu ziren...

Bainan ohidura zaharrak, bethi danik herri baten muinaren barnean bizi izan diren praktika zaharrak eztira hoin errazki funditzen... eta orain Pariseko eta Euskalherriko kabaretetan euskaldun striptitosak taldeka ikhus ditirogu...

Badirudi ezen euskaldunsek munduari erran nahi zer aukotela ezen striptisa euskal ohidura zaharra dela egiazko euskaldun folkloreaken froga ederrena.

Orain Euskalherriko plaza eta herriska guztietan turistaren sosak erremusinar bezala, euskal-folklore eskale-taldeek presentatzen duten nazional-prostituzionearen erkatzean, Pariseko eta Inghaterrako kabaretetan erakusten den striptisak, behintzat alde hobeak baditu. Euskal folkloristek erremusinar biltzeko gure herriko kultua, turista zozoei erakusten derauelarik, gure herriaren sakonguak aurkezten dituzte eta ahalkegabe gure intimitateak prostituitzen dituzte. Heien eretzean, striptisea gauza noblea da, striptitosek kabaret batetan, maitasunaren temple batetan bezala, beren dantzak dagitzate. Iguzkitan egiten den euskal nazional-prostituzionearen eretzean, kabareteko saletan erakusten den strip-tise-dantza arthezko spektakulua da, euskal folkloreraen exemplu iathorrena eta ederrena.

VASCONICAE LINGUAE EROTICI GLOSSARI TENTAMEN

--> *Titulu horren pean publikalua izan da joan den mendearen azkenean, KRYPTADIA izendun bilduman, hemen ondoan emailen dugun latineuskal-hiztegi laburra (Krytiadia, Heilbronn-en 1883-1889 Parisen 1897-1911, II. Welter argitaratzailea).*

Pariseko Bibliotheque Nationale-an aurkhitu dugun bilduma hortan anhitz arraroa da agertzen ziran herri askotako, ethnographia, folklore eta mintzai-jakintzako dokumentu batzu, heien karakter berhezia gatik ezin publika zitezkeanak publiku zabalarentzako bildumetan, nahiz dokumentu edo istudio horiek beren interes eta garrantzia dadukaten ethnographia, mythographia, literaturaren historia, mintzai-jakintza bai eta psikologiaren aldera ere. Hala diosku H. Welter-ek.

Den den bezala kopiatu dugu egilearen izenik gabe dagoen hiztegi hori, hutsak (irar-hutsak?) zuzentzeko utzirik. Segur gara gure irakurle jakintzuek ez dutela gauza berririk bertan ikhasiko halaz ere uste

izan dugu balio zerbait zukeala haren berriro argitaratzeak, euskal-philologiaren aldetik bereren. (Jon Mirande eta Goulvenn Pennaod.)

AMARE - *maita-tze*, v. ex. *maita*, n. adj. carus, dilectus.

AMPLECTI - *musu* seu *pot eman*; *potikeia* vid. BASIUM.

ANUS seu PODEX - *ipurdi-chilo* (culi-caverna).

BASIUM - *musu*, *pot*. Secunda vox bearnensis est et proprie usurpatur pro-*labium*; ex: ea derivatum est v. *potikeia* cf. proverbium ab Oihenarte collectum: *eure gelaria ez potikeia* «ne baisotte pas ta chambrière».

CACARE - *kaka-tze*.

CASTRARE - *chikira-tze*, *men-tze*, *osa-tze*. Tertia vox «intregare» significare videtur; primae vero proprius sensus est «resecare, abbreviare» et formatur a *chiki* «parvus, brevis» ex qua simul deducitur *chikiro* «vervex».

CATULITIO, vid. SUBATIO.

CLUNES seu NATES - *atzeko-alde* (posterioris latus), *iphurdi-mathel*, *epur-mazel* (culi gena), *uzki-alderdi* (culi lateralis pars).

COIRE - *yokatze* (jocare), *chicoka-tze* (gallum imitari?), *isoratze* (gravidare?), *tinketean* vel *chintiatean ari* (in tactum inire).

CREPITUS - *uzker*, *phuzker*, *puzker*.

CULUS - *ipurdi*, *iphurdi*, *epurdi*; osteko; *uzki* (ex; *utz* «vacuum, cavum». *Uzki* non multum differt ab *iduzki* «sol»; narratur autem episcopum quemdam Bayonensem, virum certe disertissimum ac vasconicae, *culum* pro *solem* dixisse, haud sine multo audientium risu.

CUNNUS - *alu*, *potchor*, *alu-motza*.

AQUITIO vid. SUBATIO.

FEMUR - *ichter*, *ichtar*; *azpi* (pars inferior).

FLATUS - *phoker*.

FUTUERE vid. COIRE.

INGUEN - *istaloki* (ab *ichtar* «femur»).

MAMMA - *bular*, *bulhar* (pectus); *zintzur* (guttur); *papo* (jugulum), *paparo*, *paparda*.

MAMMILA - *dithi*, *tithi*, *titi* (ex gall. et bearn.)

MENSTRUARE - *ilekoak*, *illekoak*; *ilhabeteak* (menses); *illodolak* (sanguines menstrui); *ilberak* (novationes menstruae); *gorriak* (rubra).

MENTULA - *pito*, *pitcho*, *pitchil*, *pittilin*; *bustan* (cauda) de asini et tauri membris dicuntur *sakil* et *killa*

(ex gall. «quille»). Exclamatio *astapitoa!* (sunt qui dicunt *astokilla*) corresponder bearnensi *viedaze!*

MINGERE - *picha-gite; ur-egite* (aquam facere); *ur-ichurtze* (aquam librare); *chiste*.

MULIER - *emazte, emakume*. Ultima vox formatur ex *eman* «donare, ponere» et *hume* «catulus, infants».

NATES vid. CLUNES.

OBSTETRIX - *emaina* (ex *eman*, dare, donere, ponere).

OSCULUM - *musu, pot*; vid. BASIUM.

PARERE vid. PARTUS.

PARTUS VERENDAE - viri *potzuak* (plur.); mulieris *moltso, motza* (sg).

PARTUS, PARER - *erdi-tze* (ex *erdi* «dimidium»).

PELLEX - *ohaide* (propr. «socio cubilis» ex *ohe* «cubile, lectus»).

PILUS - *bilo, ile, ule*.

PODEX vid. ANUS.

PUDENDA vid. PARTES VERENDAE.

RIGESCERE - *chuti-tze* (erigi, surgere); *arma-tze* (armatum iri).

SEMEN - *limbore*.

SUBATIO, CATULITIO, etc. Gallice exprimuntur hac paraphrasi «en chaleur, en rut» cum loquitur de feminibus animalium, Vasconice, similiter ac latine, variis expressionibus utitur: de equa dicitur *giri*; de cane femina *ohara, ogara, ohora*; de sue *ihaus, ihausi, ikhausi*; de ove *arkara, arkhara*; de capella *azkara, azkharra*; de vacca *susaya, susara*.

TESTICULUS - *barabil, barambil; koskoila, arautza* (ovum).

TITILLARE - *phurtzika-tze, zirri-tze*.

UMBICULUS - *chilko, chilla, chilbor, silbor* (ex zilo «fovea»).

URINA - *pitcha* (ex gall. et bearn.); *chisi; gernu; ur-churi* (alba seu albescens aqua).

VENTER - *sabel*.

VIR - *gizon*. Pro mare animalium dicitur *zezen* de tauro; *garaño* de equo admissario; *ahari* de arieta; *ordotch* de ver + fovea, caverna).

FINIS

SAGARRA ZERGATIK

Denbora haietan Adam eta Eva zoriontsu eta irus bizi ziren paradisuari. Biak euskaldun ziren, euskaldun eta fededun, baina bi itz baizik ez zituzten ikasi: Adam-ek bai eta Eva-k ez. Beren arteko artu-emane-tarako aski zituzten.

Jainkoa baitzuten nagusi eta buruzagi bakarra, noizpeinka Goitik ikustera ethortzen zitzairen eta jiten zenean Eva mutu egoten zen eta Adam-ek jainkoari beti ba, ba erantzuten, jainkoak ixpiritua bestetan zuelarik, uste zuen biek paradisuari aberastasunen artean babak bakarrik gustuko zituztela. Halaxek Adam-ek zekialako ba, ba, baizik erraiten egun guzietan gure arbasoek baba jaten zuten.

Baina Eva-k ixillik egon arren bazekien aberek, beste janaririk probatzen eta dastatzen zutela. Asea zen baba jatez. Orduan sugeak esplikatzen. Eva-k sagarra ostu edo lapurtu zuen, Adam-i janerazi. Biek orduan itzegiten, mintzatzen ikasi zuten. Eta izen duen orok izatea baitu Eva-k bai esaten ikasirik baiaren frutu goxoa probatu zuten.

Jainkoaren leen bixitan ordea beren buruak salatu zituzten. Adam bere ohiko, ba, ba leloarekin ari baten ere, Eva mihia, mingaina beroturik: Baba, zergatik beti baba, holako sagar onak direlarik. Eta paradisuatik kanpoa izan zuten, beren baba ta sagarrekin. Jainkoak Adam eta Eva Euskal Errian jarri zituen eta geroztik guretarrek baba ta babarruna jaten dute bertute orduetan, aldiz sagarra jaten edo edaten pekatu tenore goxoa denean.

Gure erriko gizonaek ez dute beren lagun xarmagarriari sekulan parkatu eta oraino emaztearen kontrako erran zahar eta esaera ezagun dira: Andere ederra, etxean gerra eta abar... Baina Zuberoan entzun dudan hau ez dut sekulan irakurri:

Ez ta ametza, zuhaintze (arbola)

Ez ahuntza kabale (abere)

Haborozik eta emaztea jente.

IPUIN ITZULIAK

FRU METTE

(Jutlandeko ixtorio zahar bat)

Behin baziren senar-emazte eli bat, hiru alaba bazitienak; Karen, Maren eta Mette deitzen ziren. Ejer ziren begientako, bena bihurri eta hezgaitz ziren hiruak, Mette, haatik, gaitzena zelarik. Horrengatik senargeiak jin ziren Karen eta Maren eskien galta, eta ezkuntu ziren; hanitx luzaz irain, zian aldiz Metten eskiaren galtatzera batek ausartu artio. Azkenian, haatik, senargei bat ediren zian, bai eta hirugarren ikusalditik landa hirugarren egunian, zeinia joitian, elizan batuko zirela, apezak ezkunt litzan. Ezkunt eguna heltu zenian, aitetamak eta alaba elizatu ziren, bena luzaz eguruki behar izan zien senargeia. Azkenekoz heltu zen. Zamari zahar handi baten bizkarrian horra zen; arma bazian saihetsian, eskietan ardilezko esku-mantxu eli bat, eta txakur handi bat jerraikitzen zitzaion. Ezteiak urrentu orduko emaztiari erran zeron:

- Zamarian jar hadi en'aitzinian eta etxera abia gitian.

Emaztiak egin zian harek manatu bezala, nahiz aitari ez zitzaion hori sobera laket; bena senarra bere hartan tink egon zen eta zamarian juan ziren biak. Bide puxka hun bat eginik zielarik, gizonak esku mantxu bat erortera titzi zian.

- Eraik'ezak -erran zeron txakurrari, bena txakurrak etzian eraiki.

- Eraik'ezak berala! -erran zion hartzara, bena txakurrak lurrian utzi zian.

Hirugarren aldikoz txakurra auherretan manatu unduan, arma hartu zian eta txakurrari tiratu, hantxek berian hilotz erori beitzen.

Aitzina juan ziren senar-emaztiak eta oihan bate-tara heltu ziren. Han gizona ekuratu nahi izan zen; eratxi ziren eta zamaria alatzen utzi zian bere laxiala. Gizonari uduritu zitzaionean aski pausatu zirela, zamaria hiru aldiz deitu zian, jin zekiola; bena etzeron axofik egin eta alatziari jerraiki zen. Gizonak ordian arma hartu zian eta zamaria tiro batez ero. Emaztia etzen guti harritu eta goguan hartu zian behin ere etzela senarraren aitzinian bihurri izanen. Ordian gizonak zaharo berde bat muztu zian eta emaztiari eman zeron, erranez:

- Begir'ezan nik gibel galtatu artio.

Holaxe ebili ziren etxera heltu artio. Han irus bizi izan ziren une eli bat alkarrekilan, emazuak ezpeitzian sekulan ahantze oihanian zirelarik goguan hartu ziana, hots, behin ere etzela senarraren aitzinian bihurri izanen. Hain hun eta sinesle zen, beti ihurk ere ezpeitzian erranen Mette hezgaitz hura zela...

Egun batez, senarrak erran zeron emaztiari:

- Zer iduritzen zain, presta baginte hire etxenkuen ikustera juaiteko?

Bai botzik nahi zian emaztiak. Ordian gizonak mitila manatu zian botura ekar lezan, eta abiatu ziren. Bidian zebiltzelarik, kurlo saldo bat ikusi zien zelian.

- Bele ederrak hoik -erran zeron mitilari gizonak.

- Ez, hoik eztutuk beliak, kurloak 'tuk -emaztiak erran-. Gibel itzul adi eta etxera goatzen -gizonak arrunt mania eman zeron mitilari.

Egun zunbait hanti landa, senarrak berriz ere emaztiari galtatu zeron ea apaintu nahi zenez, etxenkuen ikustera juaiteko:

- Bai, gogo hunez -harek arrapostu.

Artalde handi bat ikusi zien bide bazterrian: -Hori dun otso saldua! -gizonak erran zian.

- Hoik ardi eta bildotsak'tuk -emaztiak.

- Gibel itzul adi eta goatzen etxera -gizonak mitilari nianatu zeron, eta egun hartan etziren aitzinago ebili.

Geroxiago, senarrak hirugarren aldikoz emaztiari galtegin zeron, aitetarnen ikustera juaiteko apaindu nahi zenez. Eta harek baietz. Ordian botura elki-azizian gizonak eta abiatit ziren.

Bide puska hun bat egin unduan, oilo andana bat batu zien.

- Erroi andana hau handixka dun -gizonak erranzian. -Bai, egia diok -emaztiak berala.

Eta hola aitzina jua ziren eta Metten aitetamen etxila heltu. Oro boztu ziren hen ikistez. Karen eta Maren ere han ziren beren senarrekilan. Amak bere hiru alaba berareki bildu zitian kanberalat, Mette nula bizi zen senarrekilan jakin nahiturik beitzen. Artian, aita xaharrak pegar bat urrez eta zilarrez bete zian eta mahainaren ganean ezari zian hiru senarren aitzinian, ziularik:

- Pegarra ukenen dik ziek hiruetarik emazte sinelena dianak.

Ordian hiru gizonetarik lehena oihuka hasi zen:

- Karen, Karen maitia, burua ager ezan amiñi bat!

Bena harek deitu eta deitu arren, etzen Karenik agertu. Ez eta kanberan ere etzian senar harek emaztia berarekin eraman ahal izan. Bigarren gizonari berdin agitu zitzaion bere Marenekilan. Hirugarrenaren aldia jin zenian, bortala jua zen, jo zian eta hau baikizik erran:

Mette, aigu huna.

Lasterka jin zen Mette eta senarrari galtatu zeron zer nahi zian. Gizonak erran zeron:

- Ekarran oihanian nik eman zaharo, hura.

Berareki zian eta berala eman zeron. Ordian senarrak zaharoa beste bi gizoner erakutsi zien, eta hunea erran:

- Huntsa so'gizie: zaharoa okertu nian berdea zelarik. Ziek ere hola egin behar zunien.

IXILTZE

(E.A. Poe)

«Niri entzun -Gaizkinak esan zuen eskua bere burugainean jarriz-; aipu dudan lurraldea Libiako lurralde goibel bat da, Zaire ibaiaren bazterretan. Eta hor ez da bakerik, eztare ixiltzerik.

»Badute margo laru, eritsu bat ibaieko urek; eta ez dariote aurrera, itxasorantz, baizik beti ta betiko-ikara eguzki begi gorriaren pean daude izkanbilka ta kordoka mugituz. Mila askotan ibai-ohe lohitsuaren bi aldeetarik, bada ur-lili larrizko erenu zurbil bat. Alkarri asperenka ari dira bakartegion, lepo zingil latzak zerurantz luzatuz, eta buru betiraunkorrak eskuinezker kulunkatuz. Badator ere haien artetik surmur eza-gugaitz bat, urpeko ur baten aldarra iduri. Eta alkarri asperenka ari dira.

»Haien jaurerriak bere muga badu ordea; baso ahaltsu, oihan indartsu, beldurgarri ilunak egiten duen muga. Hor, Hebrideen aldean uhinak antzo, oihanpe apala igitzen da taigabe. Baina haizerik ez da zeruan gaindi. Eta lehenagoko zuhaitz lerdenez hara-honera-ka zalantzan irauten dute irringaz ta zaratatsu. Tontor

gorek izurtzen dituzte, bederazka, ihintz betiraunkor batzu. Sustraietan berriz edendun lore arrotzak bihurturik dautza lo-asman. Eta gainaldetik karrask-erots ozen batekin, oldarrean doaz odei arreak sartalde-runtz betiko, ostertz-horma goritik behera jauzkan biribilkatzeraino. Baina haizerik ez da zeruan gaindi. Eta Zaire ibaiaren bazterretan ez da bakerik ez ixiltzerik.

»Gaua zen eta euria ari; erortzean, aldiz, euri zenuen, baina erorita odol zenuen. Banengoen zingiran zutik lore lerdenen artean, eta euria buru gainera erortzen zitzaidan, eta loreak beren soiltasun gurenean.

»Eta bat-batean, laino latz xehearen artetik jaiki zen ilargia, gorbeltz kolorez. Eta nire begiek harkaitz urdinarre larri bat idoro zuten, ibai bazterrean zegoe-na, ilargiteak argiturik. Harkaitza urdinarre latz eta gora zegoen, harroka urdinarre zegoen. Aurrekaldean bazituen hizki batzu harrian idatzirik. Eta ur-lilien zingiran zehar ibili nintzen, bazterreraino hurbildu arte, harri gaineko hizkiok irakur ahal netzan. Baina ezin irakur nitzakeen. Zingira barrura itzultzera nintzen, ilargiak gorriago argitu zuenean, eta inguratu nintzen

berriz ere begiratzuz harkaitzari ta hizkiei; eta hizkiak SOILTASUN ziren.

»Begiak jaso nituen, eta bazegoen gizon bat harkaitz erpinean; ezkutatu nintzen urlilien artean gizonak zer egiten zuen ikus ahal nezan. Lerden eta martzal zuen gizon harek itxura, soin hegitik oinetaraino. Erroma zaharreko togan bildurik zenuen. Gizabetea ez zuen ondo nabari, aurpegia ordea jainko batena zekana; ezen gauaren jantziak, eta lainoaren eta ilargiaren eta ihintzarenak, utzi zion begitarte estali gabea. Bekokia oldoztearen oldoztez halatsua zuen; nekeak zapuzturik begia, eta masaileko zimur bakantetan leitzen nion garbai, akidura eta gizadiaren aldeko nazkaren berri, baita bakar izateko nahikunde bat.

»Eta gizona harkaitzaren gainean exerita zegoen, burua esku artean, soiltasunari begira. So zegokion peko sa site urduri apalari, eta gaineko zuhaitz lerdenei eta gainagoko zeru zar atatsu eta ilargi gorbeltzari. Hurbil-hurbil nengoen loreen bahespean etzanik, gizonak zer egiten zuen begira. Eta gizona ikara zen bakartegian; baina gaua bukatzera zen, eta harkaitz gainean eserita zegoen...

»Orduan zingita sakonetan hondatu nintzen, lilien eremua zehar urgainetik urruneratuz, eta zingira

sakonetakoa loskoen artean bizi ziren ibai-zaldiei dei egin nien. Baita ibaizaldiok nire deia entzun eta etorri ziren, behemotarekin, harkaitz azpiraino, ilargiaren pean orroa beldurgarri zoliak egotziz. Hurbil-hurbil nengoen ni neure gordelekuan etzanik gizonak zer egiten zuen begira. Eta gizona ikara zen bakartegian; baina gaua bukatzera zen, eta harkaitz gainean exerita zegoen.

»Orduan madarikatu nituen lehengaiak izkanbil madarikuz; eta izugarritzko ekaitza bildu zen zeruan, lehenago haizerik izan ez zen tokian. Zerua ubeldu zen ekaitzaren ariaz, euriak zafratu zuen gizonaren gorputza, berunholdeak jatsi ziren, ibaia apar oro jarri zen, ur-liliak txistuz zeuden beren ohetan, basoa errautsi zen burrunbaz, tximistak jo zuen, eta harkaitza dardaratu zen nere bihotzeraino. Hurbil-hurbil nengoen nere gordelekuan gizonak zer egiten zuen begira. Eta gizona ikara zen bakartegian; baina gaua bukatzera zen, eta harkaitz gainean eserita zegoen.

»Orduan asarretu nintzen eta madarikatu nituen, ibiltze-maradikuz, ibaia, loreak, haizea, basoa, zerua, ostotsa eta ur-lilien asperenak. Eta madarikatuak bihurtu ziren eta ixilak izan. Ilargia zerura koloka igotzetik gelditu zen, trumoia itzali zen, tximistak ez zuen

jotzen, odeiak ekuru zeuden zibuka, urak galgan jarri ziren eta egon zuhaitzak dardaratzetik gelditu ziren, ur-lilieak ez zuten gehiago asperenik, eta ez zen haborro haien artetikako surmurrik entzuten, ezta hots itzaliak batere ezin mugatuzko lekarotz zabalean gaindi. Orduan harri gaineko hizkiei so egin nien, eta aldatuak zeuden; eta hizkiak IXILTZE ziren.

»- Eta nire begiek gizonaren aurpegia idoro zuten, zuria zen izuaren izuz. Bertan burua eraiki zuen esku-artetik, eta zutik egon zen harkaitz gainean behatuz. Baina mintzorik ez zen ezin mugatuzko lekarotz zabalean gaindi, eta harri gaineko hizkiak IXILTZE ziren. Eta gizona ikaratu zen, inguratu eta urrunera ihestu, lasterka, nik ez bait nuen gehiago, ikusi».

Bada ipuin politik Maguen idaztietan, Maguen burdinazaldun idazti itunetan. Badira hor, diot, edesti ederrak Zeruaz eta Lurraz eta itxaso arroaz, baita itxaso, lur eta Zeru goiei agintzen zieten Laminetaz. Bazen ere jakintza asko Sybil-ek -esandako esanetan; eta gauza uren urenak eritzun zituzten aspaldion Dodona aldean ikaratzen ziren osto ilunek. Baina, Allah bizi denaz, nere aldamenean hilobiko itzalpean exerita Gaizkinak jalki zidan alegia hori oroetarik miresgarriena dela daukat! Eta bere edestiari amaia

eman zionean, Gaizkinak, hilobiko zulo barruan atzera erorita, farre irri egin zuen. Nik ezin nuen Gaizkinarekin batean farregin, eta madarikatu ninduen ezin nuelako farregin. Baita hilobian betiereko bizi den katomotza hortik atera zen, eta Gaizkinaren oinetan etzan, eta aurpegiari begira zegokion mugitu gabe.

AMONTILLADO UPELA

(E.A. Poe)

Fortunato-ren hamaikatxo kaltegin ahal nuen hobekien jasan nuen, baina iraintzera ausartu zitzaidanean, apenduko, mendekatuko nintzela zin egin nuen. Zuek, ene arimaren izaera hain ondo dezaguzutenok, aiher zarete ez nuela orratio mehatxu bat ere atera. Azkenekotz apenduko nintzen; hori zen behin eta betiko erabakitako gauza bat; behin eta betiko erabakitzeak berak ordea, irrisku oro baztertzen zuen. Ez nuen zigortu behar, bakarrik, baizik ere neu damutzeke zigortu; oker bat ez dago zuzendurik zuzentza-leak ordaindu behar badu. Zuzendu gaberik dago, halaber, apentzaleak ez badu irixten, kausitzen, bere burua zahar apentzale antzo nabarmeneraztera okeregileari.

Ulertu behar da ez niola Fortunatori, hitzez ala egitez, ene nahi ona zalantzan jartzeko biderik eman. Beti ere irrifarre egiten nion, lehenago ohi nuenez, eta ez zen ohartu haren heriotz opa gogoan nuela orain egiten.

Makalaldi bat zeukan Fortunato horrek, bestalde gizon begiragarri baita, beldurgarria ere izanagatik. Harroputz zebilen ardo ezagutzale zelakoan. Italiarretan guti dira egiazko ezagutzaleak. Gehienetan, zaletuarena egiten dute abaguneari dagokiolako, Britain-dar eta Austriar miliondunak atzipetzeko. Margoertian eta harri bitxietan Fortunato, bere herritarrak iduri, sasi-jakintsua zenuten; ardo zaharretan zinezkoa, berriz. Hortan ez nintzen haren gandik urrun ibiltzen: nerau oentsua nintzen Italiako ardoetan eta nasaiki erosten nuen ahal nuen guzian.

Ilunabar aldera zen, lhauteri-zoroaldi zoroeneko arrats batean, ene adiskidea aurkitu nuelarik. Su eta gar urbildu zitzaidan, oparo edan baitzuen. Nabar jantzirik zebilen. Soineko hertsia, laukitu bat zekarren, eta buruan adaritxurako txapel girgildun bat. Hainbat atsegin izan nuen ikustez, non uste bainuen behin ere ez nintzala geldituko haren eskua trinkatzetik. Esan nion:

- Fortunato maite hori, zorionez ikusten zaitut. Zer aurpegi ederra duzun gaur. Baina ardo-upel bat hartu dut. Amontillado dela omen eta ezbaian nago.

- Nola? -egin zuen-. Amontillado? Upel bat? Ezin leike! Eta lhauteri erdian.

- Ezbaian nago -erantzun nuen-; eta halako ergeta izan naiz amontilladoaren salneurri osoan ordaintzeko zure iritzia hartu gabe. Ezin aurki zindezkedan eta beldur nintzen merkatu on bat gal.

- Amontillado!

- Ezbaian nago!

- Amontillado!

- Eta jakin behar dut segurki.

- Amontillado!

- Egiteko baduzunaz gero. Luchresi gana banoa. Norbaitek zerbait badaki, hura da. Esango dit...

- Luchresik ez daki Amontilladoa Sherry ardotik bereizten.

- Eta halaz ere, zoro batzuek daukate haren gozamina zurearen bete dela...

- Zatoz, goazen...

- Nora.

- Zure sоторa.

- Ez, adiskide; ez dut, zure ontasunaz baliatu nahi.

Egiteko baduzula ikusten dut. Luchresi... Ez dut egiteko'rik; zatoz.

- Ez, adiskide. Ez egitekoaren gatik, bai ordea eza-gun zaizun marranta gaitzaren gatik. Sotoa ezinago eze da. Gezalez janik ditu hormak.

- Goazen halaz eta guziz ere. Marranta ez da ezer ere. Amontillado! Atzipetu zaituzte. Luchresik, berriz, ez daki Sherry ardoa Amontilladotik ezagutzen.

Horrela mintzo zelarik, ene besoaz jabetu zen Fortunato. Nik, zeda beltzeko zomorro bat aurpegian jarri eta «roquelaure» batez soina herstuki jantzirik, utzi nuen neure jauregira arin eroan nindezan.

Miraberik, mutilik ez zegoen etxean; aldegiten zuten jaialdiaren goratarrez poz hartzeko. Esan nien ez nintzela biharamen goiza baino lehen sartuko, eta agindu zehatzak eman nizkien etxetik ez mugitzeko. Banekien aginduok aski zituztela den-denak berehala haienerazteko nik aztala inguratu orduko.

Bi zuzi hartu nituen argi mutiletatik eta bata Fortunatori emanik otseman nuen, gela asko zehar, sotorako arkubide bateraino. Zurgu biribil batetik jatsi nintzen, arduraz ibiliz, lagunari jarraitzeko eskatu ondoren. Azkenekotz buka-mailera heldu eta elkarrekin gelditu ginen. Montresor-tarren ehorztegiko lur-eze gainean.

Ene adiskidea zibuka-zabuka zebilen, txapelako girgilak dindatuz.

- Upela! -galdegin zuen.

- Urrunago du, baina ikus'itzatzu sare zuriok leze horma horietan dir-dir.

Eni buruz inguratu zen eta bere mozkorbegi lausoak landatu zizkidan.

- Gezala? -galdetu zuen azkenean.

- Gezala, bai! Noiztik duzu eztul hori?

- Ugh! ugh! ugh! -ugh! ugh! ugh!- ugh! ugh! ugh!

Ene lagun gaizoa luzaro egon zen ihardetsi ahal izan gabe.

- Ezer ez da -esan zuen azkenekotz. Nik, erabakiz:

Zatoz, itzuliko gara; balios da zure osasuna. Aberats eta begiratu zara, miresten zaituzte, eta maite; zoriontsu zara, ni lehenago nintzen bezala, Hutsune handia utziko zenuke. Enetzako ez du garrantzirik. Itzuliko gara; eri zintezke bestela; ez naiz zeure osasunaren berme izaten ahal. Gainera bada Luchresi...

- Aski! Eztula ezdeuskeria bat da; ez nau hilko. Ez naiz eztul baten gatik hilko.

- Egia, egia, eta benetan ez zintudan beharrik gabe asaldatugai, baina ardura oro eman behar dugu. Tanta batek Medoc hontatik zainduko gaitu ezetasu-netik.

Bonbilak lerroka bazetzaten hauts gainean. Bat atera nuen bere kideen artetik eta lepoa hautsi nion.

- Edazu -esan nion Fortunatori, ardoa eskainiz.

Ezpainetara jaso zuen irrifar zabal batekin. Geldi egon zen eta agur nahasi bat egin zidan, girgilek dindan zegitelarik.

- Gure baranoan datzaten lurperatuei edaten dut
- esan zuen.

- Eta nik zure bizi luzeari.

Besotik heldu zitzaidan ostera eta aitzinago Joan ginen. -Zabal da harpe hau -esan zuen.

- Askazi handi eta joria ziren Montresor-tarrak -
erantzun nion.

- Zure ikurdia ahaztu dut.

- Giza-oin larri bat zola urdin batean; oinak leher-
tzen du urrezko suge narrartzari bat; honen ortzek
aztala ausikitzen diote.

- Eta ikur-hitza?

- «Nemo me impune laccessit». ihork ez nau
damurik gabe jotzen.

- Ederki!

Ardoak izarniatzen zizkion begiak eta girgilek dindatzen zuten. Ene gogoia ere berotu zen, Medocaren eragitez. Hezurtza metatuzko horma luze, upa eta upelez aldizkatuak, iragan genituen eta ehorztegi

ondora helduak ginen. Ekuratu ginen berriz eta aldi hontan ausartu nintzen Fortunatori besotik heltzera.

- Gezala! -esan nion-. Ikusazu, gero eta gehiago-tzen... Goroldiaren ariora, zibuka dago gainaldetik. Ibai ohearen azpian gaude. Hiroetoiak darizkie hezu- rrei. Zatoz, itzuliko gara beranduegi izan gabe. Zure eztula...

- Ezer ez da! Goazen aurrera. Baina lehenik, beste tanta bat Medoc hortatik.

De Grave bonbila bat hautsi eta eskaini nion. Hatsa hartu gabe hustu zuen. Begiak sutan zituen. Farrez hasi zen eta bonbila goiti aurdiki zuen ulertu ez nuen aiheru bat eginaz.

Grinaturik begiratu nion. Berregin zuen aiheru oihes hura.

- Ez duzu ulertzen? -esan zidan.

- Nik, ez -ihardetsi nion.

- Beraz ez zara anaidikoa.

- Nola?

- Ez zara hargin beltzetakoa.

- Baita -esan nuen-. Baita.

- Zu? Ezin leike! Hargina?

- Hargina, bai!

- Ikur bat, ikur bat.

- Hauxe -erantzun nuen, paleta bat Roquelaurepetik agertuz.

- Txantxetan ari zara! -egin zuen, urrats batzu atzera emanik-. Baina goazen aurrera zure Amontilladora.

- Halabiz -esan nuen, tresna soinekoaren pean atzera jarriz, eta berriz ere besoa lagunari eskainiz.

Astunki eutsi zion. Bideari jarraitu genion Amontillado-runtz. Arkubide apal eta luze batetik igaro, jatsi, aurrerago joan eta hartzara jatsi ginen, azkenean leze sakon batera heltzeko; han haize ustela zela bide, gure zuziak ilauntzen ziren, argi handirik eman gabe.

Lezearen ondo-ondoan, beste herstuago bat ageritzen. Honen hormak giza-ondakin metatuz erpineraingo tolestatuak izan arren Pariseko katakunba handietan bezalaxe. Leze barne honen hiru alde oraindik apaindurik zeuden era hortan. Laugarrenean hezurak lurreraturik izan ziren, eta hortxe zetzaten nahas-mahas multzo batean. Hezurren lekutzeak horrela bilutsitako hormaren barruan, oraindik beste leze edo zulo barneago bat nabaritu genuen, metro eta erdi... edo sakon metro bat zabal, ia bi metro gora. Bazurdi-berezko jomugarik gabe eginik izan zela: eratzen zuen nolarebait bi hegazti-zurkaitz larriren baitarteak

eta ingurutako horma gotorretako batek egiten zion atzekaldea.

Alferrik zen Fortunato, zuzi argala jasoaz, zulo barnea azterten ahalegindu. Argi goibelak ez zigun ahalmenik ematen ondo ikusteko.

- Aurrera -esan nion-; hementxe da Amontilladoa. Luchresi berriz...

- Ezjakin bat da!

Ene adiskideak hitza moztu zidan eta bizpahiru urrats eman zituen aitzina, okerkatuz, nik urren narraikiola. Berehala ondo iritxi zuen, eta ikusiz harkaitzak aurreragotzea eragozten ziola, egon zen hor, geldi eta zozo. Aurki harkaitzari esegi nuen. Harri gainaldean baziren bi burdinmako besada erdi bat edo bien artean zeharka. Batetik kate labur bat zintzilik zegoen, bestetik morroil bat. Haren gerri inguruan katea jaurti eta estekatzea, berehalako lana izan nuen. Harrituegi zen gogor egiteko. Giltza zulotik kendu ondoan kanpo aldegin nuen.

- Eskua horma-gainean igaro zazu -esan nion-. Ez esan ez duzula gezala senditzen. Eze ezea da benetan. Berriz ere otoitz egiten dizut itzul zaiten. Ez? Orduan utzi behar zaitut, utzi. Baina lehenik, artatu behar zaitut ahal bezainbatean.

- Amontilladoa! -oihu egin zuen ene adiskideak harriduratik oraindik ez bere-baitaratua.

- Egia -ihardetsi nuen-; Amontilladoa.

Hitzok esan eta ekin nion lehenago aipatu dudan hezur multzoari. Hezurak barreiatu, laster agertu nuen gisu eta harri-pila bat. Ekai horiekin eta paleta lagun, azkar hasi nintzen leze-sargua harresitzen.

Lehengo harri-lerroa doidoia eraikirik nuenean, Fortunatoren mozkorraldi handiena iraganik zela. Horren ager garri lehena izan nuen leze barnetiko auhen-oihu luto bat. Ez zen gizon mozkor baten oihua. Gero ixilaldi luze eta sakon bat izan zen. Bigarren eta hirugarren eta laugarren lerroak eraiki nituen; eta orduan entzun katea indarka dardara. Hotsak apur bat iraun zuen; bitartean, laketako izan zekidan entzutea, ene lanak utzi nituen eta hezurren gainean jarri nintzen. Kate dardara azkenean ixildu zelarik, paletari lotu nintzaion ostera eta etenik gabe burutu nituen bosgarren, seigarren eta zazpigarren lerroak. Harresia ene bularra berdintsu gora zen orain. Ekuratu nintzen harzara eta zuzia hargin-lanaren gainetik eutsiz, izpi inul zenbait eman nuen barrean zegoen itxurari buruz.

Bet-betan orroa ozen eta urragarri batzuek itxura kateztatuaren eztairitik jalkiak, indarrez bezala atze-

rakatu ninduten. Ergai labur bat zalantzan egon nintzen, ikara. Ezpata zorrotik atera eta harekin lezebarruan azta martzaka hasi nintzen; limar bateko gogoetatzeak, ordea, lasaitu ninduen. Eskua ezarri nuen katakonbetako horma gotorren gainean eta askitu zitzaidan. Harresiari urbildu nintzaion berriz; orroaka zegoen haren karraxiei erantzun nien. Oihartzun eman eta lagundu nien, indarrez eta hedapenez garaitu nituen. Hori egin nuen eta orroaegilea ixildu zen.

Gauerdi zen orain eta ene egitekoa amaitzera zoan.

Zortzigarren, bederatzigarren eta hamargarren harrilerroak osatu nituen. Hamaikagarrena, hots, azkenaren zati bat burutu ere, harri bakar bat baizik etzen egoiten jarri ta gisuztatu beharra. bortxaz jaso nuen. Zatika jarrika nuen egon behar zen tokian. Baina hona nun zen iri luto bat zuloatik kanpo etorri, ene buruan ileak lastu egin baitzituen. Mintzo goibel batek jarraitu zion eta nekez nuen hartan ezagutu Fortunato gurenaren mintzoa. Zion:

- Ha! ha! ha!, hi! hi! hi! Jostaketa ona, benetan; jostaketa ezin hobea. Far ederrik egin eraziko digu jauregian, hi! hi! hi!, gure ardo edateaz, hi! hi! hi!

- Amontilladoa -esan nuen.

- Hi! hi! hi! Bai, bai, Amontilladoa.

- Baina ez ahal da berandu? Ez ahal daude zure zain jauregin, Fortunato andrea eta gainerakoak? Goazen hemendik.

Jainkoaren maitez, Montresor!

- Bai -esan nuen-; Jainkoaren maitez.

- Baina erantzunari alferrik behatu nintzaion aldi honetan. Ekuragaiztu nintzen. Oihu egin nuen:

- Fortunato!

Ihardespenik ez; berriz ere deitu nuen:

- Fortunato!

Oraindik ere ihardespenik ez. Zuzi bat egotzi nuen egoiten zen hutsunetik eta barruan erortzera utzi nuen. Soilki girgil-hots bat etorri zen erantzun antzean. Bihotza nahasi zitzaidan; lurpeko ezetasunak zuen holakotzen. Laster egin nuen nere egitekoa urruntzeko. Azken harria bere gunean sarrerazi nuen eta gisuztatu. Hargin lan berriaren aurka hezurrezko hesi zaharra berreraiki nuen. Menderdi honetan hilkor batxok ez ditu ukitu: *In pace requiescat.*

LEGEAREN AITZINEAN

(F. Kafka)

Legearen aitzinean atezain bat badago. Baserritar bat heldu da atezain horren ganat eta Legean sartzea eskatzen du. Orain ezin dezakela utz sartzera dio, ordea, atezainak. Gizona gogoetatzen du, eta galdeztzen du geroagoan sar litekeenez.

- Bazitekek. -dio atezainak-; baina ez orain.

Legerako atea zabalik baitago, beti bezala, eta atezaina baztertu baita, gizona makurtzen da atetik zehar barnearen ikustekotz. Ohartzen zaionean, atezainak irri egiten du eta erraiten:

- Hainbat liluratzen bahau, entseia hadi sartzera, bada, ene debekua gatik ere. Baina kasu, ahaltzua nuk. Eta atezain apalena baizik ez nuk. Aretoz areto, berriz, beste atezainak badituk, bata bestea baino ahaltzuago. Jada hirugarrenaren begiratzea, nihauk ere ezin jasan diezakeiat.

Baserritarrak ez zituen horrelako zailtasunak igurikitzen; ezen uste du ororen helmenean izan behar lukeela beti Legeak; baina orain, zehazkiago so egiten diolarik atezainari, haren larruzko soinekoari, haren

sudur zorrotz handiari, haren tatar-bizar beltz mehe luzeari, erabakitzen du hobe dela sarbaimena jaso arte itxaron dezan.

Atezainak aulki bat emaiten dio eta uzten du atebazterrean jartzera. Egunak eta urteak iragaiten ditu hor jarririk. Bere zazpi egin-ahalak egiten ditu barnerat utz dezatentzat, eta nekatzen du atezaina bere eskariekin.

Noizik behin galdekatzen laburrak hasten ditu harekin atezainak; haren sorterriaren gainean eta beste gai askori buruz itauntzen dio, baina axolik hartu gabe egiten ditu galdeok, jaun handien ariora, eta azkenean, berriz ere erraiten dio oraindik ezin dezakela sartzera utz.

Gauza anitz hartu baizuen bideko gizon harek, denak eralgiten ditu, baliosenak ere, atezainaren konzientzaren erostekotz. Honek denak hartzen ditu, bai, baina hau erraitez:

- Hartzen ditiat soilki; ez dezakala uste ukan egin behar zenik ez dukala egin.

Urte andana hortan, gizonak kasik etenik gabe urkusten du atezaina. Beste atezainak ahazten ditu eta irudi zaio lehen hau duela Legean sartzeko eragozpen bakarra. Bere zorigaiztoa madarikatzen du,

lehenbiziko urteetan goraki eta axolatu gabe, zero zahartzearekin soilki marmarikatzen du bere buruarekin. Haurtzen da, eta urte luzeotan atezaina aztertutarik, hunen larruzko lepokoan bizi diren kukusoak ere ezagutu baititu, kukusoak ere otoizten ditu lagunt dezatela eta atezainaren gogoia haren alde bihurt dezatela. Azkenean haren begien argia makaltzen da, eta ez daki egiaz ilundu denetz inguruan ala begiek dutenetz aitzipetzen bakarrik. Haatik ongi oharmentzen du orain erlantz bat ilunpean, Legearen atetikan horra dena. Engoitik ez da areago luzaz bizitzeko. Hil baino lehen, aldi luze hortan bildu dituen ohar'ikasi guztiak galde bakar baterat elkartzen zaizkio buruan, atezainari oraindik ez jalgia: keinu egiten dio, gorputz konkortua ez baitu gehiago jasotzen ahal.

Atezainak apal makurtu behar du haren aldera, ezen bien handitasun-arteak asko aldatu da gizonaren kaltetan.

- Zer jakin nahi duk oraindik? -galdetzen dio atezainak-. Ezin aseha haiz.

- Denak Legearen atzetik dabilta -dio gizonak-; nolaz, beraz, nitaz besterik ihork ez du sarbaimenik eskatu urte andana hontan?

Atezainak ezagutzen du gizona urrentzera dela, eta haren entzumena itzaltzen ari denerat heltzeko oihuz dira usko:

- Besterik ihork ezin zezakeian hemen sar-baime-nik eska, hiretzat baizik eginik ez baitzen sargu hau. Banoak orain herstera.

IPUIN KONDATZAILEA

(H.H. Munro «Saki»)

Arratsalde bero bat zen eta konpartimenduan araura goha zen, eta urreneko gelditzea Templecombe-n zen, kasik ordubeteko bidearen buruan. Konpartimenduan zeudenak neskatxa ttipi bat, neskatxa ttipi bat eta mutiko ttipi bat ziren. Hurrekilakoa zen izeba bat xoko-jarleku batñoan zegoen, eta pareko beste xoko jarlekuan heiekilakoa ez zen gizon ezkongabe bat zegoen; konpartimenduan ordea bazegozan, bazeuden, neskatxa ttipiak eta mutiko ttipia. Izeba eta haurrak mozki eta iraunki eleketan ari ziren, oroiterazten zituztela bere burua kanporat uxatzera uta nahi ez duen euli etxekoi baten inguru-minguruak. Bazirudien izebaren ateraldi gehienek «Ez egin» hitzekin hasten zirela, eta kasik haurren ateraldi guztiak «Zergatik?» hitzarekin hasten ziren. Ezkongabeak deus ez zuen goraki erraiten.

- Ez egin, Cyril, ez egin -oihu egin zuen izebak, mutiko ttipia jarlekuko kuxinen lehertzen hasi zelarik, errants, odei bat eraikerazten zuela ukaldikal-. Haugi leihotik so'gitera -erran zuen gero.

Haurrak gogo gaitzez aldegin zuen leihorat.

- Zergatik ardi hoik soro hortarik jalgierazten dira -galdatu zuen.

- Uste diat belar gehiago baden beste soro batetara eramaiten direla -erran zuen izebak boz ahul batez.

- Baina belar frango bada soro hortan -ihardoki zuen mutikoak-; belarrez besterik ez da hor. Izeba, belar frango bada soro hortan.

- Beste soroko belarra hobeago dukek edo -erran zuen izebak alferretan.

- Zergatik hobeago da? -berehala jin zen ezin itzurizko galdea.

- O! So'giek behi horiei -oihu egin zuen izebak. Kasik burdin-bidearen ondoko soro orok behi edo zezen edeiten zuen, hala ere gauza bakan bati oharterazten balio bezala mintzo zen.

- Zergatik beste soroko belarra hobeago da? -tematu zen Cyril.

Ezkongabearen begitarteko zimurrak sakonagotu ziren beltzuri egiteraino. Gizon latz bat zela, ez-lagunkina, deliberatu zuen izebak bere baitan. Iholaz ere ezin hel zitekeen gogoan betagarri lizatekeen erabaki baterat, soroko belarraz zen bezanbatean.

Neskatxa ttipienak itzurpide bat ekarri zuen «Mandalay-rako bidean» gogoz erraiten hasi zelarik. Lehen neurtitza baizik ez zekian, baina ahal bezain osoki baliatzen zen bere jakite mugatu hortaz. Neurtitza berriz eta berriz ere erraiten zuen, ametsetan bezala mintzo, baina deliberatuki eta ongi entzuteko gisan; ezkongabeari irudi zitzaion norbaitek jokatu ziola neurtitza bi mila aldiz gelditu gabe ezin erran zezakeela. Nork ere egin baitzuen apikoa, itxuren araura jokoaren galtzera zoon.

- Zatozte huna, ipuin bati behatzera -erran zuen izebak, ezkongabeak berritan hari eta behin peril-seinaleari begiratu ondoan.

Haurrek herabeki aldegin zuten izeba zegoen konpartimenduko xokorat. Nabari zen kondatzaile bezala ez zedukatela gora.

Apalki eta segeretuki mintzo zela, arteka maiz geldierazten zutela haren entzuleen ganikako galde ozen harramantzatsuek, hasi zen ipuin herbail eta deitoragarri gatzotz baten kondatzen, baizik eta neskatxa ttipi bat zela ona zenik, eta ona zelakotz denek maite zutela, eta azkenean haren arimako izantza miresten zuten jende batzuek zezen amorratu baten ganik salbatu zutela.

Ona izan ez bazen ez ote zuten salbatuko? -galdegin zuen neskatxa ttipietarik handienak. Horixe zen ezkongabeak egin nahi ukan zuen galdea.

- Bai -aitortu zuen izebak gogoz kontra-, baina ez dinat uste oso hain zalu eginen zutela haren laguntzera, hainbat ez balute maite ukan.

- Ihoiz entzun dudan ipuinik zoroena da -erran zuen neskatxa ttipietarik handienak, sineste guztirekin.

- Hatsarretik landan ez natzaion behatu, hain baitzen zoroa -erran zuen Cyrilek.

Neskatxa ttipienak ez zuen egiaz abururik eman ipuinaren gainean, baina aspaldidanik berriz ere hasi zen laket zitzaion neurtitzaren marmaraka errepikatzen.

- Ez dirudi baduzula errekaista kondatzaile bezala? -bat-batean erran zuen bere xokotik ezkongabeak.

Izeba harrotu zen, bere burua zaindu beharrean igurukitzen ez zuen oldar hortarik.

- Gauza zail baino zailago bat da haurrek entelega eta halaber prezia ditzaketen ipuinen kondatzea -erran zuen zutzuta.

- Ez naiz zure aburuko -erran zuen ezkongabeak.

- Behar bada zuk ipuin bat kondatu nahi diezu -izan zen izebaren ihardespena.

- Ipuin bat kondazaguzu -eskatu zuen neskatxa ttipietarik handienak.

- Behin -hasi zen ezkongabea- bazen Bertha ize-neko neskatxa tupi bat, ohi ez den bezala ona zenik.

Haurren axola istan bateko piztu-eta berehala hasi zen ilauntzen; bazirudien ipuin guztiak izugarriki elkarren antzeko zirela, edonork kondaturik ere.

- Manatzen zitzaion oro egiten zuen, egia erraiten zuen beti, soinekoak garbi atxikitzen zituen, irris-pudingak gozagaintxoak izan balira bezala jaten zituen, bere leitzioneak ezinago hobeki ikasten, eta adeitsu zen bere maneretan.

- Pollita ote zen? -galdegin zuen neskatxa ttipietarik handienak.

- Ez zuetarik bata bezain pollita -erran zuen ezkongabeak-; baina ona zen ikaragarriki.

Gibel olde bat izan zen ipuinaren alde; «ikaragarriki» hitza on izaitearekin elkarturik berrikuntza laudagarri bat zen. Irudi zuen egiantz, bat erakarten zuela izebaren haur ipuinetan aurkitzen ez zena.

- Hain zen ona -jarraiki zuen ezkongabeak-, non ona zelako medaila batzu irabazi zituen, beti ere iski-

linbaz loturik bere jauntzian zekarzkinak. Baziren obedient zelako medaila bat, ordudun zelako beste medaila bat, eta zintzo zelako hirugarren bat. Meta-lezko medaila handiak ziren, eta dindatzen zuten bata besteari kontra bazabilelarik. Bizi zen hiriko beste haurretarik batek ere ez zuen hirur medailarik; beraz jende guztiak zekien ohi ez den bezala haur ona izan behar zela.

- «Ikaragarri ona» -oroiterazi zuen Cyrilek.

Jende guztia haren ontasunaz mintzatzen zen, eta herriko Printzeak haren aipua entzun zuen, eta erran zuen hain ona zenaz gero haizu izan ahal lekiokela asteen behin haren baratzetan ibilaldi baten egitera joatea, hiritik lekorean bertan baitzeuden. Baratze ederrak ziren, eta ihoiz eta zitzaion haizu edozein haurri heietan sartzea; ohore handi bat zen beraz. Bertharentzat harat haizu izatea.

- Ardirik bazena baratzeotan? -galdatu zuen Cyrilek.

- Ez -erran zuen ezkongabeak-, ardirik ez zen.

- Zergatik ez zen ardirik? -jin zen ihardespen horrek erakarritako ezin itzurizko galdea.

Izebak irriño bat utzi zuen bere ezpainetan agertzera, kasik irkaitz bat zela erran baitzitekeen.

- Ardirik ez zen baratzeetan -erran zuen ezkongagabeak-, Printzearen amak amets egin zuelakotz behin, edo ardi batek edo gainerat erori ordulari batek hilen zuela haren semea. Zio horrengatik Printzeak ez zuen ardirik bere baratzeetan begiratzen, ez eta ordularirik bere jauregian.

Izebak gogor egin zuen mirestez ez hatsalbotzekotz.

- Ardi edo ordulari batek hil ote du Printzea? -galdegin zuen Cyrilek.

- Bizi da oraino, beraz ezin erran dezakegu ametsa egia biurtuko denetz -erran zuen ezkongabeak axolik gabea-. Dena dela ardirik ez zen baratzeotan, baina xerrikume andana bat bazen leku guztian gaindi kurri.

- Zer kolore ziren?

- Beltz mutur zuriekin; zuri orbain beltzekin; gorputz guztiz beltz; uher, orbain zuriekin; eta zenbait, gorputz guztiz zuri ziren.

Kondatzailea gelditu zen baratzeotako tesauraren asmu osoa haurren irudimenean sar zedintzat; gero jarraiki zen:

- Bertha atsekabetuxe zen baratzeetan lorerik ez zela ikusirik. Hitzeman zien bere izebei, nigarra

begin, ez zuela Printze onaren lorerik bilduko, eta gogoan hartu erran gabea, bere burua zoroska haute-man zuen ohartu zenean lorerik ez zela biltzeko.

- Zergatik ez zen lorerik?

- Xerriek denak jan zituztelakotz -erran zuen berehala ezkongabeak-. Baratzezainek Printzeari erran zioten xerriak eta loreak biak ezin zitezkeela; beraz erabaki zuen xerriak ukanen zituela eta ez loreak.

Laudamenezko zurrumurru bat izan zen Printzearen erabaki bikaina zela zio; zenbat jendek ez zuten bestera erabakiko.

- Beste gauza atsegingarri frango baziren baratzeetan. Aintzirak baziren, arrain urretsu, urdin eta berdeekin; eta zuhaitzak, gauza xotilak instantean erraiten zituzten etxetxoriekin; eta txori hustukariak orduan erreka zuten kantuak oro hustukatzen zituztenak. Bertha harat eta hunat bazabilan eta bazterrik gabe laket izaiten zen, eta ari zen bere gogoan: «Ez banintz hain ona ohi ez den bezala, ez nintzen haizu izanen baratze eder hauetan sartzera eta ikusteko diren guztien gozatzeraz». Eta bazebilelarik, haren hirur medailek dindatzen zuten bata besteari kontra, eta laguntzen zuten egiaz nola ona zen oroitzeraz. Orduantxe otso ikaragarri bat jin zen inguruka

baratzeetarat eia xerrikume gixen bat harrapa zezakeenetz afaritako.

- Zer kolore zen? -galdegin zuten haurrek, heien axola berehala suspertzen zelarik.

- Gorputz guztia lohi-kolore, mihia beltz eta begiak hits, uher eta ezin-erranezko basakeriaz distirant. Baratzeetan ikusi zuen lehen gauza Bertha izan zen; hunen debantala hain zen zuri eta tonagabea non urrun urrunetik ikus baitzitekeen. Berthak ikusi zuen otsoa eta hari buruz ikurmakurka zetorrela ikusi zuen, eta hasi zen agiantzatzen ihoiz baimena ez balu ukan baratzeetan sartzeko. Ahal bezain azkarki laster egin zuen eta otsoa jin zen, haren ondotik gaitzeko jauziak eta saltoak egiten zituela. Ahabi-sasi batetarat heldu ahal izan zen eta gorde zen sasi-ondo lodienetarik batean. Otsoa usainka etorri zen kaparretarik gaindi, mihi beltza ahotik dilindan eta begi hits uherrek amorraturik distiratzen. Bertha izugarritan beldur zen, eta bere baitan ari zen: «Ez ba nintz izan hain ona ohi ez den bezala, ordu huntan hirian nintzateke gerizan». Halaz ere, ahabiaren urrina hain zen handi non otsoak ezin usna zezakeen zein lekutan gorde zen Bertha, eta sasi-ondoak hain ziren lodi non ibil zitekeen heietarik gaindi denbora luzean haurra ikusi gabetarik; beraz

iruditu zitzaion hobe zukeela joaitea eta xerri baten harrapatzea ordainetan. Bertha dena ikara zegoen otsoa hain hurbil zebilkiolarik ikur-makurka eta usainka, eta ikara baitzegoen, obedient zelako medailak dindatu zuen zintzo eta ordudun zelako medailei kontra. Otsoa aldatzera zen entzun zuenean medailen hotsa dindatzen zuelarik, eta gelditu zen behatzekotz; berriz ere dindatu zuten oso hurbil zuen sasi-ondo batean. Oldar egin zuen sasi-ondo barnerat, begi hits uherrak basaki eta lorioski. distirant, eta herresta ekarri zuen Bertha kanporat eta azken puskaraino irentsi zuen. Hartatik gelditu zen guztia haren oskiak, soinekoak eta ona zelako hirur medailak izan ziren.

Xerririk hil ote zuen otsoak?

- Ez, denak salbatu ziren.

- Ipuina gaizki hasia zen -erran zuen neskatxa ttipietarik ttipienak-, baina ederki burutu da.

- Ihoiz entzun dudan ipuinik ederrena da -erran zuen Cyrilek.

Bestelako aburu bat eman zuen izebak.

- Ipuin bat txit ez bezalakoa haur gazte batzuei kondatzeko! Artoski irakatsitako urte hanitzen ondorioa lehertarazi duzu.

- Zer nahi den -erran zuen ezkongabeak, bere hatuak biltzen konpartimendua utzi baino lehen-, hamar minutaz geldirik atxiki ditut, ez baituzu beste hainbeste egin ahal izan.

«Zorigaiztoko emaztea! -erran zion bere buruari Templecombe geltokiko kaitik behera zoalarik- urreneko sei hilabeteetan edo, haur hoiak jazarriko dute jendeen aitzinean, behar ez den bezalako ipuin baten eske».

LEIHO IRIKIA

(H.H. Munro «Saki»)

Ene izeba berehala jautsiko da, Mr. Nuttel -esan zuen hamabost urteko andere gazte txit ausart batek-; bitartean nolazpait jasan beharko nauzu.

Framton Nuttel saiatu zen zer egokia esatera, oraingo iloba behar bezala lausengatuko zuena gero-ko izeba behar ez zen bezala iraindu gaberik. Bere baitan inoiz baino areago zalantzan zegoen jende batere ez-ezagun batzuei jarraian egiten zituen adei-legezko ikustaldiok asko lagunduko ziotenez segitzen ari omen zen zain-osakuntzan.

Badakit zer gertatuko den -esan zion arrebak baserriko igesleku hortara erbesteratzera ziolarik-; lurpean bezala ezkuratuko zera, ez diozu arima bizi bati hitz egingo eta zainak sekula baino gaixoago dituzkezu gogoetan egotetik. Gomendiozko gutun batzu emango dizkizut hor ezagutzen ditudan jende guztientzat. Oroitzen naizenez, zenbait oso atseginak ziren.

Framtonek bere buruari galdetzen zion Mrs. Sappleton, gomendiozko gutunotako bat andere horri ematera baitzeturren, atseginen sailekoa ote zen.

Jenderik asko ezagutzen ahal duzu hemen? -esan zion ilobak, alkarrekiko ixiltasunean nahiko parte hartu zutela iduritu zitzaionean.

- Ez batto ere -erantzun zuen Framtonek-. Ene arreba hemen egon da erretorenean orain dela lau urte edo, badakizu, eta gomendiozko gutun batzu eman dizkit jende zenbaitentzat.

Damu bizi bat nabari zuela bere mintzoan esan zituen azken hitzok.

- Beraz nere izebaz jakin ezer ere ez dakizu? -aurrera esan zuen andere gazte ausartak.

Haren deitura eta zuzenbideez besterik ez -aitortu zuen arrotzak.

Bere buruari galdeka ari zitzaion ea Mrs. Sappleton ezkondua ala alargunen errenkadakoa zenez. Zuzen ezin azalduzko zerbaitek gelako eguratsean gizonik hor izan zela iduri erazten zion.

- Gaur direla hirur urte zorigaitz haundiak jo zuen -esan zuen neskatxak-; zure arreba hemen egonez geroztik izango zen.

- Zorigaitzak jo? -galdetu zion Framtonek. Nola ere baitzen, basa-bazter baketsu hori zorigaitzari ez zegokion. Behar bada zure baitan galdegin duzu zergatik leiho hau zabalik daukagun urril-arratsalde

batez. -esan zuen ilobak, ate-leiho haundi bat soropik batetara irikitzen zena behatzarekin erakutsiz.

- Eguraldia nahiko epela da sasoiarentzat -ihardetsi zion Framtonek-; baina leiho horrek zer ikusirik ahal du zure izebaren zorigaitzarekin?

- Leiho hortarik, gaur bertan hirur urte bete direla, haren senarra ta bi anaia gazteak eguna ehizan igarotzeko asmotan joan ziren. Inoiz ez dira itzuli. Zingiralur batetan gaindi beren ohiko ehiza-tokirantz zioazelarik, hirurok losko ezkutu batean amildu ziren. Eurite gaitzak izan ziren udara hartan, badakizu, eta beste urteetan sendo ziren lurguneak uste gabeen oiripetan lehertzen ziren. Heien gorputzak sekula ez dira idoro. Hori da izugarriena...

Hemen neskatxaren botzak bere ausartzia galdu zuen eta ikaratuxe zen, jende jendekin batena aritzo.

- Izeba dohakabeak beti uste du egun batez itzuli-ko direla, bai eta heiekin batean galdu zen eiz-or espainol beltza ere, eta leiho hortatik sartuko direla, egin ohi zuten bezala. Horrengatik leihoa irikirik eukitzen dugu arratsero, osoki ilundu artean. Gaixo izeba, maiz kontatu dit nola atera ziren, senarra bere kapu-sai zuria besapean zeukala, eta Ronnie haren anaia gazteena «Zertarako, Bertie, dantzan ari zera beti?»

kantatuz, hari tentatzeko beti egiten zuen bezala, esaten baitzuen zainetara ematen ziola kantu horrek. Badakizu, zenbait aldiz, gaur iduriko arrats ixil geldietan, halako laztura bat sendi dut, guztiok leiho hortatik sartuko bailirakeen...

Ixildu zen, dardara. Arnas arin hartu zuen Framtonek izeba oldarrez gelan sartu zenean, barkameneskeka berandu agertua gatik.

- Vera laketgarri izan zaizulakotan nago? -galdetu zuen andereak.

- Asko ernagarri izan da -ihardetsi zion Framtonek.

- Ez ahal dukezu axolik leihoa irikita uzten badut -esan zuen beingoan Mrs. Sappletonek-; ene senarrata anaiak aurki ehizatik itzuliko dira, eta hortik sartzen dirade beti. Aintziretara joan dira gaur beren zizpekin, esan nahi baitu zikin ederrik egingo dutela nere gaixo oinoihaletan. Gizonezkoen ohitura, ez da?

Jarraiki zen ehiza kontuetaz alaiki mintzatzen... hegazti gutxi izateaz... neguan ahaterik arrapatzeko zen itxaropenaz... Framitonentzat izur-gai huts zen hori guztia. Etsituki alegindu zen hizketa bain beldurgarri ez litzakean gai batera saiestera, ondore hau osorik erdietsi ahal izan gabe ordea; konturatzen zen

parteka baizik ez ziola etxeko andereak kasurik ematen, eta haren begiak gelditu gabe Framtonen gainetik leiho irikirantz eta bestaldeko soropilerantz inguratzzen ziren. Benetako zorikabeaz arrotz gertatu zen etxe horretan urteburu saminaren egunean bertan.

- Sendagileek aho batez diote behar dudala atsedena hartu, gogo batere ez kezkatu eta edozein gorputz neketatik urrun egon -jakin erazi zion Framtonek, sinesmen nahiko zabaldua baina gezurrezkoa baitzukan jende ezezagutuak edo gertuzko ezagunak jakingose direla gure gaitzez eta minez, heien kausaz eta sendabideez-. Dietaz den bezainbatean, ordea, ez daude aburu bereko.

- Ezta? -esan zuen Mrs. Sappletonek, ahoa azken mementoan arrausin ordezt hitz egitera behartuz. Gero batbatean bizkortu zen, erne ta adi jarriz, baina ez Framtonen esanari-. Badatoz azkenean! -oihu egin zuen-. Tea hartzeko puntu-puntuan, eta ez ahal dirudite begietaraino lokatzez beteak?

Framton hozkiriotu zen eta ilobaren aldera inguratu, adiskide baten errukia adi erazi nahi zuen begirada batekin. Neskaxa leiho irikitik karipora so zegoen, izu ta harridura bere begi borobilduetan. Ezin esanezko beldurtasun batek latz-ikara zeragiola, Framton

itzuli zen bere aulkian, eta zuzenbide berean begiratu zuen.

Beltzagotuz zioan ilun-nabarrean, hirur irudi ibili zebiltzan soropilean barrena ateleihora buruz; hirurok zipa bana zeukaten besapean, eta eietako bat, besalde, kapusai zuri batez sorbaldatik zintzilik zamatua zen. Eiz-or espainol beltz bat aztaletan zerraien nekez. Otsik egin gabe etxeraino urbildu ziren, eta orduan botz gazte marranta batek kantatu zuen ilunpetik: «Aizu! Zertarako, Bertie, dantzan ari zera beti?»

Zoratu batek bezala Framtonek eutsi zien makila ta ginbailari; etxe-sarrera, etxe-aurreko zidor harriztatua ta biderako atea lausoki ohartutako mailak izan zituen bere igesaldi lasterrean. Bidean goiti zetorren bizikletadun batek bide-bazterreko berrora inguratu behar izan zuen arin, elkar jotzeari ozta itzur eginaz.

- Hemen gaituzu, maitea -esan zuen, ate-leihotik sar eta, kapusai zuria zeukanak-; loitsu samarrak, baina gehiena idortuta dago. Nor zen hona gentozelarik tximista bezala atera den hori?

- Gizon bat bere gisakoa, Mr. Nuttel delako bat -erantzun zion Mrs. Sappletonek-; bere eritasunez baizik ez zekien mintzatzen, eta iritxi zeratenean kan-

poa hartu du burrunban, aitzaki edo agurrik batere gabe. Iratxo bat ikusi zuela esan zitekeen.

- Eiz-ora zela kausa uste dut -esan zuen ilobak lasaiki-; salatu dit txakurrek nazka ematen diotela. Bein paria-ozar saldo batek hilerri batetara lasterkatu zuten Gangesko bazterrean, eta gau guztia hilobi zulatu berri batean igaro behar izan zuen, piztiak haren gainean zaunkaz zeudelarik, aginak ageri ta lerdia zeriotela. Aski da norbait zinetatik ateratzeko.

Ipuinak epe laburretan asmatzeko doai berezia zeukan.

BURUA

I

Lelo aspergarria: mugazaindegietako ikerlari hoiek, iragaiten nintzan aldikal, zakua idekierazten zerautaten, ezer jakin nahi gabe, deus entzun nahi gabe. Zoazte zuek buru bat, buru bat dela heiei sine-tseraztera! «Jokatu nahi dut tabak iragaiten ari zare-la!» Egia aitortu behar zuten ordea: Eric-en burua zen, garbiki mozturik, bizarra arradaturik, bilotxut. Orduan joaiten ziran jaunttoak samurturik, eta estekatzen nuen berriz ere ene oihalezko zakua.

Bertzeak ohiturik zitzaizkion. Aipu txarretan nendukaten hargatik, gizon oihas, bitxikeriazale eta aist-heta nintzalakoan. Emaztekiek nekez entelegatzen ninduten. Ni ere ohitu nintzaion: engoitik ba nakian nehoiz ezin aska nintekeala gizaburuzko hamar libera hoiez.

Arratsetan, arroztegietara heltzean, burko-pean kokatzen nuen. Eta gero, gau guztian, agertzen zitzaitan. Gau guztian ikusten nuen.

Bai eta nik zakua ideki gabe ere, agertzen zitzaitan, -atzetik ere agertzen zitzaitan, bizkarrean- ikusten nuen, atzetik, bizkarrean, bide luzeetan gaindinenbilen artean.

Oroimenetik ken ordea? Zertako? Den inarrote ttipienak jauzi eragiten zeraukon ene bizkar-gainean eta ene bihotzari kontra hots eginerazten: zurpailtzen nintzan.

Behin hertzain batek huxtu bat egin zerautan. Deitu ninduen. Ez nintzan inguratu. Ba nakian ene atzean zegoala, Eric-en burua, bakarrik, begiak hetsirik, eurialdi luzean zintzilik, eta zuri. Burua makurtu nuen eta urratsa eztitu: ordukotz ahal nuen, bakarrik, euri-pean galdurik, ene buruarekin hitz egiten. Eric-enarekin ere hitz egiten nuen... Gelditzen nintzan. Eta gero erraiten neraukon:

«Alo, ba hator?»

II

Aimons-nous, pauvre chien.

Lamartine.

Ez nakian gehiago burutik norat eman. Orain, haurrek eta zakurrek lasterkatzen ninduten karriketarik ilkitean eta metroarean sarguetan. Ezti baino eztiago nintzan heien eretzean, bainan zer nahi duzue, Eric-en haragia usnatzen zuten, nik uste. Mutiko batek, behin, bele baten antzora oihu egin zuen iragaiten nintzalarik. Ikarak hartu ninduen ezen, ene bizkarrean, burua berez jauzi zen.

Orduandanik ezti baino eztiago izan nintzan haren eretzean ere. Elizetan -eta norat joan ines bertzela?-aulki goraren pean finkatzen nuen eta. otoitzetan nihardukan luzaro. Xurrungaz egon zen behin, gatu-tzar bat iduri. Ixil zedin agindu neraukon. Ez zen buruzkindu eta ixildu zen. Gau batez, lo-hasman nengoalarik sabai batean, ohartu nintzan, besoa milikatzen zerautala, eta gero, begitarte.

Lotarik irrino ezti bat egin neraukon, atsegin emaita gatik, eta laztandu nituen haren bilo txutak.

Aurkitu nuenean, bihararnun-goizean, ene sorbal-dari aitzi, gaizki lo egin zuela ikusi nuen. Bainan ernatzen hasi zen harzara. Zain-gorri eta zuriak ateratzen zitzaizkion leptok, erro gorri eta zuri batzu bezala: giranoi-zati bat higitzen zitzaion eta zintzurra ordotzen eta zabaltzen zen, ordotzen eta zabaltzen, gum-

mizko izan balitz bezalako klaska batekin. Bizarra ba zuen.

Ikaratu nintzan ea Eric osorik bihurturen zenetz. Harritu nintzan. Detroit-eko elizaz profeitatu nuen, mailadi beribilkor bat bait daduka. Gainaldetik kanta-tokitikan, ikusi nuen maila baten ganean behera joaiten eta burdinsarearen peti murgiltzen. Orduantxe begiak ni ganat eraiki zituen.

III

Nigar egin zuen Aeneas piadosak
Vergilius, pasim

Dergymanak -Mr. Neuman zaritzon- igorrerazi zerautan burua mezu bat bezain luze zen barkarnezko eskutitz batekin. Asko andeaturik izan zen lurpeko maila beribilkorren horzkadura eta «presse-purée»-etan. Ba zarion. Ixurten zuen. Nigarrez hasi nintzan.

Uda jin zen. Pitin bat usaidua zen. Ni ere hirotuz nindoan emeki-emeki. Bazkal-ondoan, kafea edatearekin, ohartzen nitzaion batez ere. Gauaz, Eric-en

buruak ene joitez hots hau egiten zuen: pflax, ptlax!... Nire barrutik hiroa igaiten zen, kolore orotako. Larrua astintzen zerautaten amets izigarriak egiten nituen. Behin atzarri nintzan, hasarreturik; bi besoen eta kas-koaren artean hartu nuen burua, eta tinkatu eta empeltatu nuen ene bihotzaren gainean.

«Edan diezadala!» Bainan, ondikotz! ez zuen hiroa edan, gorria oro edan zuen. Bat-batean -brast- deslotu zen eta joan zen harlauzetan gainera borobilkatze-
ra, ene biziko zorigaitzerako. Hasperen egin zuen, aserik. Frantzesek treinean egiten duten bezala, ase-rik direnean. Bi egunen artean ez nintzan atzarri, hiltzeradino nekaturik. Gaua zen. Orduntxe, deusez ez nintzan oroit. «Laurens» zigarreta bat piztu nuen, urri-
naren iraganerazteko. Bainan zigarretak ere urrina hartu zuen. Armañak. Aphurto baten artean erre nin-
duen, urdaila garbitu zerautan. Bihotzetik zetorren ordea. Ene bihotza zen. Gizenduz zoan: zorne baten antzora hantuz zoan. Leher egitekotan zen, alde oro-
tara, ene gorpu guztiaren barrura, bai abarrak bai zirrista urrintzatuak egoizten zituela.

Orduan burua bilatu nuen, haztaka, Agorrilako itzalpean. Aurkitu nuen, biribil, bero eta astuna. Amul-
tsuki haren matela perekatu nuen ene matelarekin.

Iruditu zitzaitan nigarrez ari ginela. Bainan ez. Izertze bat geldit ezina baizik ez zen.

IV

Go ahead, said The Mexican, hit him!

Faulkner

Arrats guztiez ene-etxen elkartzen ginen, Anthony eta ni, gorritz margoztu etxolan. Oholak arraildurik zegozan.

Furnegoak kebidea oker. Burinezko ohea maingu. Ivan ere jin ohi zen, baina ez genuen maite, bai eta Schnitzelbank-edo konkorra ere, bere koskaren gainean jarten bait zen eta arrabitean aritzen. Baldin hasten ba zen doinu baten joiten. Eric-en beharriak atzekaldera hedatzen ziran. Hordi ginenean, botoiletara aurdikiten genuen burua bederatziko birla-jokuan edo kito-jokuan bezala, herots gehiago egitea gatik.

Zutik, zut-zutik furnegoaren gainean nik oinak berotzen nituen, aho betez hurrupatzen nuelarik Rhein-eko arpo kiretsa. Non ez dakit, Eric-en buruak amerikar kepi bat aurkitu zuen. Ivan-ek gutisten gin-

tuen. Anthony-k besomotze, zen -nahi zuen buruak guk bezala edan zezan, eta zurezko besoa gaketik ilki-ta urratzen zuen hark ere kantatu arteano. Biok irrikarkailaz hasten ginen zein gehiagoka. Konkorrak nehoiz ere ez zuen irri egiten. Aski ba zuenean arrabit joitez, txapela kentzen zuen eta eskea egiten.

Arrats hartan ordea, Eric-en buruak ez zuen edan nahi ukan. Ez eta irri egin. Ez eta kantatu ere. Ivan edanerazi genuen eta ohe-perat bulkatu. Anthony-k eta nik, mahain gainean zutiturik, topatzen genuen, bai gizona, ikai handiko edanontzi handiekin, eta edanontziak sorbaldaren gainetik egoizten genituen, leiharretara, botoiletara, akaitilen argiaren gainera. Berant heldu zen konkorra. Koskaren gainean jarri zen beti egin ohi zuen bezala. Arrabitik ez zedukan ordea. Zankoak elkarren gainean ibeni zituen eta ixilik egon zen. Gero eskea egin zuen.

Nik, bertzerik gabe, Eric-en burua aurdiki neraukon buruaren gainera. Intzirika egon zen luzaro.

V

Gelditokirat heltzearekin, hatsalbo, alde orotarik persegiturik sareak hatzeman ninduen, itzalezko, itzal dantzazko sare batek, -ehun mila ba ziran edo bat ere ez zen.

Gabargiek, hegatzte bombardatuen gainetik, dantzan ziharduten haizearekin. Barkalunak multiplikatur zoztan.

Kaiolak elkarretan barna sartzen ziran, argizko jauregi eta itzalezko joan-jin egitez. Eremu bat, eremu handi bat, argizko eremu handi bat, ene oinetan, zabaltzen zena, hedatzen zena, ba zetorren, ba zetorren ni ganano. Gibelerat egiten dut. Hurbiltzenago zait. Aitzina dator. Gibeleratarago nik. Ezin haratago joan gelditzen naiz bizkarra azpi-ate bati, ate-sare bati kontra, besoak gurutzaturik, ahoa zabalik. Argia zankoetara igaiten zait eta aurpegian zart egiten deraut.

Eric-en burua, goialdean itzaturik goialdean eta ezkerrean hertzaintzako agirietan bezala. Agertzen zait odololadakal, gabargietan horra den haize- buhadakal. Neona bezain zurpail da, itxasmarmukak bezain malgu eta berinatsu. Nork nahi du? Hogoita hamar amerikar zigarreta paket. Fluoreztatzen du

Mingaizki batek bezala tonatzen du. Zutik dago. Hainbat zutik non makurtu naizela irudi bait zait.

Oroz gainetik ez dezazuela aldamanetik jo, goait dagozten retrobisoretan, goait dagozen ogi eta arrainen multiplikazioneetan. Xuxen erdiko ogirat! Begia, begia behar da begiztatu, eta ostrea begiaren erdian! Ba diakusat, hire begia, odol-txorten artetik.

Utzazue ur-hustera. Artatz-plaka ur-huts dadin. Veronica-ren Waila hedaturik, bi iskilimbaren artean.

BI FRAIDEAK

«Hor 'tiagu orain», erran zuen Sean Padraig O'Raghallaigh-ek, eta egia zioen. Ageri ziren hiltiarrak, bide handian zebiltzala. Hautemaiten genituen zaldi beltzak aitzinean eta hilgurdi gora. Bi hilgurdi bazirela bagenekien; bigarrena ezin ikus zitekeen ordea ehortzetari zerraikion jende andana gatik. Jende saldoa bazegoen bidesketan gaindi ere, lantegietako emazteki hanitz haien artean, atso zargaldu, neska gante zurpail, zapi bana buruan. Gizonak eta haurrak ere hor ziren. Haurrak soilki ez zeuden atsegabeturik goiz hartan, eta hiltiarren erronka luzea haien ganaino heldu baino lehen, instant guztiez laster egiten zuten bidea zehar, eta instantkal erraiten zieten besteek egoki litzaiekela ongi eraikirik zirela erakustea, hau bezalako egun batean. Eta mutil gazteak hiltiarrekin zebiltzan bide hanthan gaindi, elkarri ele erran gabe, hiltiarrak maiz egin ohi duten araura, baina bakoitza bere aitzinean so eta isilik.

«Elizako kantu baten emaiten ari'tuk» erran zuen Sean Padraig O'Raghallaigh-ek, eta hala zen. Kantikaren hitzak ezagun genituen orain: «Gure Aiten

Fedea». Emaztekiek zuten kantatzen, eta nahiz kanti-ka hori bera kar handiz maiz eman zuten aitzinetik, misionetan edo Elizako jaietan, ihoiz ez zuten kantatu goiz hartan bezain kartsuki. Orduandaino erraiten zituzten eleen egia osoa ez zuten ezagutu:

Gure aiten fedea beti pizturik da
garaituz presondegi su eta ezpata.
Haren izen maitea noiz ere aituta
bihotza jartzen zaiku harro et'ausarta..

Ez ahal zen hori beren zoria bera? Presondegia, sua eta ezpata garaitu beharra! Ez ahal zen horrengatik bazela ehortzeta hori? Ez ahal zen horrengatik hil izan zirela haien begien aitzinean hilkutxetan eramaiten ziren bi gizon gazteak? Atso ala neska gazte horiek ez zuten deus handirik ulertzen Irlandaren Edestiaz, baina goizetik arratsera lantegietan jopulanean beren bizia higatzen zutenak ez zuten ihork erran beharrik herri oiripetu bat zirela jakiteko. Eta iduri zitzaion bidezko zela hori, bizitze latza, mota orotako eramaitea, beren jainko sinesmena zela zio. Ez zena Kristo oinazeztaturik izan? Ez zutena maiz entzun nola, aspaldiko denboretan, lehen kristauak

heriotara eraman izan ziren Erroman? Berak ere ez ziren martirien ariako? Munduak garaitzen zituen, Kristoren artaldea beti garaitzen zuen bezala. Beren fedea begiratu zuten, ordea, munduko entasunak eta ospea oro baino goihenago, preziosago, iraunkorrago zen gauza; eta hori ean ken ziezaiekeela, eta bozkariotan zeuden horrengatik, eta goiz hartan beren martirien ehortzeta geldiki, doloroski, handizki haien aitzinean iragaiten zelarik, beren bihotzaren sua ixurtzen zuten, hartan nabari baitziren bi mila urteko oinaze, min eta bozkarioak.

Ehortzeta hurbiltzen ari zitzaigan. Jadanik gizonak txapel edo burutakoak kentzen hasten ziren. Gure eskolako mutikoak elkarri bultzaka ari ziren hobeki so egiteko. Gure ondoan zeuden emaztekiak kantatzen hasi ziren. Mutiko zenbait irri karkailaz abiatu... Lehen hilgurdia hogeit hamar metrutan baizik ez zegoen gutarik, edo hor inguru, eskolaren atetik karipo O'Riain Anaia lasterka etorri zenean. «Emazue orain mutilak», erran zuen, eta haren botz eder sakona entzun genuen goraki kantatzen:

«Gure aiten fedea, sineste zuzena».

Eta so egin genionean ikusi genuen begian nigarra zuela. Guztiok eresia harekin hartu genuen eta kanta-

tu ozenki eta kartsuki. Ni hauk nigarra begietan nuen eta Sean Padrai O'Raghallaigh inguratu zenean, hark ere ezin gorde zezakeela ikusi nuen.

Gure aitzinean iragan zen ehortzeta, bide handitik goiti hil-herrirat buruz. Gure aitzinean iragan ziren bi hil-gurdiak eta hilen aita, gizon xahar, bilo urdin bat; bigarren gurdiaren atzetik bakarrik zoana -bi anai baitziren hil izan ziren mutilak-; gero Apezpikua eta apezandana bat, gero gizon gazteak eta haien ondotik, berriz, neska apain talde bat, emakumeek erakutsi ohi ez duten gudari antz zutenak eta gure aurretik zebiltzalarik, Sean Padraig O'Raghallaigh neri buruz inguratu zen eta erran zidan: «Emakumeen Batasuna».

Laket zitzaion Sean Padraig-i guk baino gehiago bazekiela gauza horietan erakustea. Azkenekotz hiri-zainak jin ziren beren burdingurdietan.

«Ez luketea ahalge izan behar?», erran zuen andre xahar batek nere aldamenean.

Jendea barreiatu baino lehen, harzara jarririk ginauden gure pulpitueta. Hala ere, ez zuen gutarik ihork langura handirik, eta guztiak elekan ari ginean O'Riain Anaia sartu zenean. Irlandera zigun egunaren ordu hartan irakasten. Begitartea sutan zuen salan sartu zelarik. Ehi zen ezagutzea oraindik inarrosirik

zedukala bihotza. Haiduru ginen ehortzeta ikusi berriaz mintzatuko zitzaigula, bait genekien sorterrizale zela hezur muinetaraino. Hark zuen burley jokua bultzatu eskolan, hark gintuen irlandera hitzegitera zirikatzen, maiz aipatzen zizkigun Irlandaren edestiko eginak, hark zituen Bazkoko gizandien irudiak ekarri hormetan ezartzekotz, eta Sean Padraig O'Raghallaigh-ek beti zioenaz, anaia bat zedukan Irlandar Herkalaren Gudalosteko (IRA) aintzindari zena, Gork-eko eskualdean. Egun hartan usteak ez zigun huts egin. Lehenik jean zen errakuntza baten idaztera zurbeltzean, baina bizpahiru hitz idatzi ondoren, guri buruz inguratu zen, liburua baztertu zuen, eta erran:

Mutilak, ulertzen dukezue egun, aitzinetik ihoiz ulertu duzuen baino hobeki, zerengatik irlandera ikasten ari garen. Ulertzen dukezue guti dela zuek hartzen duzuen nekea bi gizon gazte haiek hartu berri duten nekearen eretzean, beren bizia erran baitute Irlanda eta fedea gatik... Beren bihotzaren odola zuen gatik isuri dute, eta eskergabeak zinateke ez bazinate hek bezain Irlandar on, handitu zaretekenean. Eskergabeak zinateke ez bazinate beti beti oroit, egun, kanpoan bide ondoan ikusi duzuenaz. Otoizten zaituztet beti ere hartaz oroit zaitetzen. Otoizten zaituztet beti ere

Irlanda maita dezazuen eta bihotzetik Engelanda higuin dezazuen. Engelandak bait dakar egun ehortzi ditugun bi gizon gaztean herioaren hobena. Engelandak gorrota ezazue, gorrota.

Ez zuen O'Riain Anaiak errakuntza burutu ahal izan. Bazegoen beste fraide bat salan. Gure isilik sartu zen, gura oharren guztia O'Riain Anaiaren elei baitzen.

- O'Riain Anaia, O'Riain Anaia, ez zaizu zilegi haur horiei hola mintzatzea, ez zaizu zilegi ihoren bihotzean higuinaren piztea.

O'Ruaire Anaia zen mintzo. Ermitaina deitzen genuen, beihalako saildu eta Jainkoaren lagun bat gogoratzen zigulako, hain baitzen mehar eta zimel. Gainera, egiazko saildu bat zen. Hori ezagut zezakeen gure arteko kamutsenik zen mutilak. Nahiz zigorra erabiltzen zuen, beste fraideek bezala, ihoiz ez genuen haserreturik ikusi. Eta bazkalaitzin ordu erdi batez doktrina irakasten zigularik, laketa zitzaigun hari behatzea. Zinez harritu nintzen ikusi nuenean O'Riain Anaia geldierazten. Gizon suharra zen O'Riain Anaia, baina ez zen oldartu. Eztiki erantzun zion Ermitanari.

- Erran du Padraig Mac Piarais-ek gaizkiaren higuintzea badagokigula.

- Eta gure Jaunak erran du gure etsaien maite ukaitea bide zaigula -ihardetsi zuen O'Ruaire Anaiak-, eta Hari behatu behar gatzaizkio. -Guri buruz inguratu zen-: Damu dut, haurrak, O'Riain Anaia geldierazirik; baina suharturik da; hori ez da handi, eta beldur nintzen zerbait erranen zizuela gero bera ere damu bait zitekeen erranik. Ez zitzaion zilegi erraitea zerbait higuindu behar duzuela, ez eta Engelandarrak ere. Higuina da mundu hontako gaitz eta nahasmendu gehienen iturburua.

Hartara hitza hartu zuen O'Riain Anaiak.

- Zuzenean dago O'Ruaire Anaia, haurrak; ez zitzaidan zilegi zuei erraitez Engelandarrak higuindu behar dituzuenik. Bidegaberik ez nuen erran, ordea, otoiztu zaituztedanean Irlanda maita dezazuen, otoiztu zaituztedanean zuen sorterriari zindo egon zaitezten.

- Ez! -erran zuen Ermitainak, eta salatik jalki zen. Klasea lanari lotu zitzaion atsekabeturik.

Biharamun goizean, eskolarat etorri ginenean, Bazkoko gizandien irudiak are ez ziren hor. Sean Padraig O'Raghailigh-ek zekarren ipuinaren araura, hirizaintzako gizon bat etorri zen bezperako arratsaldean haiek ateratzera.

Erran zuen Sean Padraig-ek ez zekiela hirizainek nondik ikasi zuten irudiok eskolan genituela, baina jelosten zela nork zedukan hortako hobena. Zein nahi lekutan salatariak baziren. Beste eskol-haur batek erran zuen hirizainek ez zituztela batere irudiak kendu, baina bai eskolaren zuzendariak. Entzunzuela honek O'Riain Anaiak egin zigun hizketaren berri, izugarritan samurtu zela eta eragotzi ziola mota hortako irudirik eskolarat ekartzea. Nor zen zuzen ez genekien, baina gehienok uste genuen hirizainek zituztela eraman. Laketgarri zitzaigun uste hori. Bazirudigun jazarle batzuk ginela jadanik, hirizainek kasu eman behar baitziguten. O'Riain Anaiak ez zuen gertakariaz gurekin hitz egin, eta herabe ginen galderarik hari zuzentzera.

Horren ondotik aste baten buruko, fraide berri bat zen gure irakasle, O'Diomsaigh Anaia, gizon handi gorraile bat. Sean Padraig O'Raghallaigh-ek erran zigun O'Riain Anaiak fraidegoa utzi zuela, Irlandar Herkalaren Gudalostean sartzeko. Beste eskol-haur batek edo bigek erran zuten ipuin asmatzen baizik ez zela ari Sean Padraig, ohi zuen bezala; ezer horrelakorik ez zela gertatu eta segurki itzuliko zela O'Riain Anaia.

Zuzenean zegoen aldi hartan Sean Padraig, nola ere egia jakin baitzuen Urte erdi bat iragan zen, eta orduan goizalde batez, Ermitainak klaseak oro elkar-reratu zituen aretoan eta erran zigun:

- Otoitzak erran behar ditugu, haurrak, lehen Anaia kristau izanik, orain Irlandar Herkalaren Guda-lostean kapitain zen O'Riain-en arima gatik, gizandi baten antzera hil baita herenegun atzerritarren kontra gudukan. Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Saindua-ren izenean, halabiz.

Goiz hartan, suharki zuen gutako bakoitzak otoitz egin.